

Kontzeju

www.oñotzi.eus



Berba Oñoti



@BerbaOñoti



Kolatu



Oñoti Irrati

DELIA

Oñotiko Udal aldizkaria | 2017ko abendua | 278. zenbakia



POTX ETA LOTX

'Herriko festetan' ikuskizuna eta izen bereko CDa aurkeztu ditu pailazo-bikote oñatiarrak

50 URTE TREN BARIK

Abenduaren 31n beteko dira 50 urte trenak azken bidaia egin zuenetik



Argazki zaharren bilduma - Oñatiko Udal Artxiboa

44 urtez martxan egon ostean, 1967ko abenduaren 31n egin zuen azken bidaia Oñati eta San Prudentzio arteko trenak Egun batzuk lehenago, beheko irudian ikusten den oharren bidez jakinarazi zitzaien langile eta erabiltzaileei, Vasco-Navarro trenak ez zuela zerbitzurik emango urtarriaren 1etik aurrera.

Inork gutxik ulertu zuen erabaki hura Oñatin. Defizitarioa zen trena, bai, baina FEVEren estatu mailako zerbitzuetan erabiltzaile gehien zituen lineatako bat zen eta, gainera, zerbitzu sozial inportantea betetzen zuen, batez ere klase ertaineko herritarren artean, Debagoiena, Arabako lautada eta Lizarra aldeko eskualdeak lotuz.

Horregatik, trena kentzeak nahigabe handia eragin zuen herrian, bereziki, tren zerbitzuko langileen eta hauen senideen artean. Tren geltokiko etxean bizi zirenen eta trena erabiltzen zutenen oroitzapenak bildu nahi izan ditugu.

44 URTEZ MARTXAN

Lizarra, Gasteiz eta Mekolalde lotzen zituen Vasco-Navarro trenbidearen adar bat zen San Prudentzio eta Oñati artekoa, eta 44 urtez egon zen martxan, 1923ko irailaren 20tik 1967ko abenduaren 31ra arte.

Sortze prozesu oso zaila izan zuen Vasco-Navarro trenak. 1889an zabaldu zen lehen zatia, Gasteiz eta Leintz Gatzaga artean *The Anglo Vasco Navarro Railway* konpainiaren eskutik. Hortik aurrera, baina, enpresa britaniarrak arazo ekonomiko handiak izan zituen, eta etenda geratu ziren eraikuntza lanak.

Gorabehera askoren ondoren, trenbidea estatuaren esku geratu zen, eta 1913an ekin zitzaien lanei. Gatzagatik Eskoriatzarainoko zatia (17 km) 1915eko urriaren 4an inauguratu zen; gero, Eskoriatza eta Arrasate artekoa (7,4 km) 1918an, eta Arrasatetik Bergararainokoa 1919ko irailaren 3an.

Egun hori jai-egun izendatu zuten Oñatin, ahalik eta jende gehien joan zedin San Prudentziara trenari ongietorria ematera. Udalbatza osoa, musika banda, eliz agintariak eta hainbat herritar bildu ziren bertan. Eta, badirudi, bere eragina izan zuela mobilizazio hark, hurrengo urtean, 1920 urriaren 12an, San Prudentzio eta Oñati arteko trenbidea eraikitzeko lanak hasi baitziren, eta ia hiru urte geroago inauguratu zen Oñatiko adarra, Victoria Eugenia erregina bertan zela.

Gasteiz eta Lizarra arteko trenbide zatia (72 km) 1927ko irailaren 23an zabaldu zen.



Luis Mari Berrikano

German Berrikano
estazioko buruaren semea



“Estazioko diru kontuez arduratzen zen aita”

German Berrikano García de Albeniz Oñatiko tren geltokiko burua izan zen ia 26 urtez, 1934tik 1959ra. Aurretik, San Prudentzio eta Maeztuko estazioetan lan egindakoa zen. Oñatin egon zen garaian, estazioko etxean bizi izan zen, emaztea eta zazpi seme-alabekin. “Etxe handia zen, eta gustora bizi izan ginen bertan” gogoratzen du Luis Mari semeak; “Vasco-Navarro lineako etxerik handiena eta ederrena zen Oñatikoa”.

“Trena abiatzeko agindua ematen zuen gure aitak, eta esatazioko kontabilitateaz arduratzen zen. Gogoan dut, herriko enpresari asko etortzen zirela aitaren bulegora, lantegietarako behar zituzten merkantziak ekartzeko bagoiak antolatuz. Garai hartan gauza asko ekartzen ziren trenez: ikatza, egurra, simaurra, arraina, frutak... Mugimendu handia egoten zen geltokian” azaldu digu Luisek. “Bidaiariak ere bai, jakina; jende askok erabiltzen zuen trena lanera (Zubillagako forjetara eta Altunara, Arrasateko Zerrajerara, Bergarako Labe Garaietara...) edo eskola profesionalera joateko”.

Luis Mari bera ere asko ibili zen trenean. “Hiru urtez egon nintzen Gasteizen ikasten, eta trenez joaten nintzen; Balzarekin San Prudentzioraino, eta handik Gasteizera San Vicenterekin. Makinistaren kabinan beti. Trenbideko langileen senideontzat dohainik zen trena”.

ZENBAIT DATU



INAUGURAZIO EKITALDIA

1923ko irailaren 30ean inauguratu zen Oñatrainoko trenbidea, Victoria Eugenia erregina eta beste hainbat agintari zibil eta erlijioso bertan zirela; hala nola, Fr. Zacarías Martínez Gasteizeko gotzaina, Araba eta Gipuzkoako diputazioetako ordezkariak eta Oñatiko udalbatza osoa, Juan Gordo alkatea buru zela. Ospakizuna borobiltzeko, sonatua izan zen agintariei udaletxeko aretoan eskainitako bazkaria (7 plater eta 3 postrekoa) Pablo Txurruka eta Pablo Etxeberriak prestatutakoa.



Glori Balza da Vallejo

Joaquin Balza
makinistaren alaba



“Oroitzapen oso politak ditut”

Gloriaren aita, Joaquin Balza de Vallejo hogei urtez aritu zen tren gidari lanetan Oñatin. Gasteiztarra jatorriz, aurretik Arrasaten ibilia zen makinista lanetan, eta 1948ko uztailaren 16an iritsi zen Oñatira. Estazioko etxean bizi izan zen harik eta trena kendu zuten arte. “Lau familia bizi ginen bertan, eta oso ondo konpontzen ginen. Familia bat bezalakoa ginen, elkarri lagunduz beti” gogoratzen du Glorik, Joaquinen alabak.

Jende askok erabiltzen omen zuen trena. “Goi-zeko 7etan irteten zen lehenengoa, eta herritar asko joaten zen Arrasate eta Bergara aldera; langileak, ikasleak... Behin baino gehiagotan zain egoten zen aita, ikasleren bat berandutzen bazen. Oso ondo konpontzen zen gazteekin, eta hauek ere asko maite zuten”.

Glori bera ere asko ibili izan zen trenean. Sarri joaten ziren Gasteizera, aitaren familia bisitatuz. Inoiz, aitaren ondoan eserita, trena gidatzen joan zela ere aitortu digu.

Oso gogoan ditu, bestalde, Errege egunean ekartzen zizkieten opariak. Errege magoak iristen ziren *Tren Salón* izeneko bagoi dotore batean, estazioko langileen senideentzako opariekin. “Hura ilusioa eta poza gurea!”

Zoritzarreko istripu bat ere gogoratzen du. “Torreauson gertau zen. Ateak abitua harrapatu zion moja bati, eta trena abiatu zenean trenbidera erori zen. Handik gutxira hil zen. Gainera, gure oso etxekoa zen. Pena izugarria hartu zuen aitak”.



Joaquin Balza tren gidaria eta atzean, Sabas Guridi, pakete banatzailea

Loli eta Pili Nogués

Antonio Nogués
orratzainaren alabak



“Pena handia izan zen tren kentzea”

Boltoñakoa (Huesca) jatorriz, 1944an iritsi zen Oñatira Antonio Nogués Sanz (1903-1971) eta orratzain edo errailtzain (*guarda-agujas*) lanetan jardun zuen hogeita bi urtez. “Trena kendu baino urtebete lehenago utzi behar izan zuen lana, biriketako gaixotasun baten ondorioz” gogoratzen dute Loli eta Pili alabek. Hauek ere estazioko etxean bizi izan ziren, bigarren solairuan. “Oso gustora bizi izan ginen bertan. Gaur egun ere harreman oso ona dugu bertan egon ginen familiok. Uda partean egun-pasa ederrak egiten genituen Altunaneko etxeetako berdegunean. Pena ederra hartu nuen etxe hartatik irten behar izan geneuenen.

Negar egin genuen” dio Pilik.

“Trenbideko orratzak zaintzea zen gure aitaren lana, trena errail batetik edo bestetik joateko. Goribarrera joaten zen lanera, hantxe zeuden eta orratzok” gogoratzen dute ahizpek. “Gustora aritzen zen lan horretan. Oroitzapen ona dugu”.



Beraiek ere sarri ibiltzen ziren trenez. “Guk ez genuen ordaintzen, eta San Prudentziora joaten ginen sarri, hango lagun batekin jolas egitera. Makinistaren kabinan joaten ginen. Bestalde, ama Abaigarrekoa zenez, tarteka Lizarraraino ere joaten ginen trenez, eta handik aurrera autobusez”.



Errailtetik irtendako trena. (Arg.: Andres Arlanzon)

Angeles Erle

Cornelio Viana
faktorearen emaztea



“Gaur balitza ez ebein trena kenduko”

Santikurutze Kanpezukoa (Araba) jatorriz, Oñatiko tren geltokiko faktorea izan zen hainbat urtez Cornelio Viana. “Merkantziak fakturaittia izaten zan bere lana. Ofizina bat eukan, estaziñoko jefiaren onduan, eta hantxe egoten zan lanian” gogoratzen du Angelesekin. “Gaiñera, biharra eguenian, beste lan batzuk be egitten zittuan; San Prudentzioko estaziñoko jefe egon zan, eta, tarteka, txartel-zulataile lanian be ibiltten zan, Bernabe Biain falta zanian”.

Oñatira iritsi berritan, Felisatxonean egon zen apopilo Cornelio, eta Angelesekin ezkondu ondoren joan ziren bizitzera estazioko etxera. “Hamar urte egin gittuan bertan, geure etxia egin arte. Ume bixak be han jaixo ziran, eta gero Kanpantxora etorri giñan, Erletarren etxera”. “Estaziñuan be ondo bizi izan giñan” jarraitzen du Angelesekin. “Aldamen batian komuna eta arbola batzuk egozen, eta hantxe inguruan egitten geben geure bizimodutxua, umiak hazten”.

Trena kendu zuten egunerarte egin zuen lana bertan Cornelio. “Pena haundixa hartu geben. Negar be egin neben nik. Askotan esaten dot, gaur balitza ez ebeila kenduko; izan be, gauza ederra da trena eukittia. Baiña Reyesekin esaten eben kendu egin bihar zala, eta halaxe kendu euen. Zorionez, gure aitta etzan luzaruan egon lan barik. Handik gutxira hasi zan fundiziñuan”.

Trenaren azkenengo eguneko bitxikeria bat ere kontatu digu Angelesekin. “Cornelio San Prudentzian eguen lanian egun haretan, eta azken-azken billetia Jose Maria Agirrebalzategiri saldu otsan. Halaxe esaten eben berak”.



Cornelio Viana, eskubikoa, estazioko txartel-lehiatilararen aurrean.

ZENBAIT DATU

Elorregi-Oñati arteko trenbidea eraikitzeke lanek, lursailen desjabetzeak barne, 3.600.540 pta. kostua izan zuten. Hasieran ikatzez (lurrun-makina bidez) ibili zen Vasco-Navarro trena, baina 1929an argindarrez funtzionatzen hasi zen Gasteiz eta Lizarra arteko zatia. Gasteiz-Mekolalde eta San Prudentzio-Oñati arteko trenbidera 1938an iritsi zen argindarra.



Trena Madalenako geltokira iristen (Argazkia: Jesus Mari Arzuaga funtsa)



Iturria: Olatz Osaren ‘Oñatiko trenaren inguruan’

Angel Elgero

Trenaren erabiltzailea



“Zazpi urtean egunero erabili nuen trenea ikastera joateko”

Angel Elgerok, bere garaiko beste gazte askok bezala, egunero erabiltzen zuen trenea Arrasateko Eskola Politeknikora ikastera joateko. “Goizeko 7:00etan faten giñan, eguneko lehenengo trenea hartuta. Eguerdixan buelta bazkaietara, eta arratsaldian berriz eskolara. Gero, eskolaz gain, Industrial Mondragonesa tailerrian lanian hasi giñan, eta orduan Arrasaten pasaitten geben egun osua, eta iluntzeko trenian etorten giñan etxera. Halaxe zazpi urtian”.

Beheko irudian ikusten den moduan, Vasco-Navarro konpainiak langileei eskaintzen zien abonoa zeukan Elgerok, eta horri esker tarifa berezia zuten eguneroko bidaietarako, pitin bat merkeago.



Normalean, eguneroko bidaietarako bagoi bakarria izaten zuen trenak, baina konpartimentu bereiztuekin: ‘Primera’-koa (tapizatutako jarlekuekin) eta ‘Tercera’-koa, eguerrezkoekin. Primerakoan oso jende gutxi ibiltzen omen zen.

Bestalde, Bergarako Pazkoak edo Arrasateko Santamasak zirenean tren bereziak antolatzen ziren. “Arratsaldeko 4etan urten eta gabeko 12,30etan bueltaitten zan” gogoratzen du Elgerok. “Lagun kuadrillak, familixak... Jende asko faten zan”.

Bere amaren arrandegirako jeneroa ere trenez iristen zela gogoratzen du Elgerok. “Ondarrutik Debara eta handik Oñatira etorten zen trenez, egunero kajakada bat. Gero, ‘Moreno’ izeneko gizon batek eruaten eben karretillan estaziñotik plazako peskaderixara”.

Pena handiz oroitzen du Elgerok trenea kendu zuten eguna. “Piletako etxian bizi giñan orduan, eta etxeko balkoitik ikusi nebem azken trenea faten. Korkostegi alkateak esaten eben oso defizitarixua zala, baiña, kontua da, zerbitzu sozial bat beteten ebela, eta herrixak pena haundixa hartu eben, garai hartan ez eguelako kotxerik, eta autobusak be oso gutxi; Oñati eta Elorrio artekoa bakarrik”.

Julio San VicenteLorenzo San Vicente
tren gidariaren semea

“Milioitik gora kilometro egin zituen gure aitak trenea gidatzen”

Maltzaga eta Gasteiz arteko lineako tren gidaria izan Mizen Lorenzo San Vicente hogeita hamar urtean. Gasteiztarra jatorriz, Vasco-Navarro konpainiaren taillerretan hasi zen lanean, eta makinista lanpostua lortu zuenean, Bergarara etorri zen bizitzera familiarekin.

“Egunero lau bidaiak egiten zituen gure aitak. Joaneokak bi Gasteizera, eta bueltakoak beste bi” gogoratzen du haren seme Juliok. “Eguerdiko trenea Bergarara iristen zenean, saski batean eramaten genion bazkaria tren geltokira eta, gero, Maltzagara iristean jaten zuen”. Vasco-Navarro trenean kilometro gehien egin zuen gidarietako bat izan zen Lorenzo; 250km egunean, milioitik gora guztira.

Gasteiz-Lizarran ere ibilia zen gidari lanetan, baina gehiago gustatzen zitzaion Maltzaga eta Gasteiz artekoa, nahiz eta arriskutsuagoa izan, Gatzagako aldapa eta errebuelta bihurriengatik. Baina, hala ere, politagoa eta entrenigarriagoa omen zen. Gasteizetik Gatzagarainoko tartea 60 km/o.-ko abiadan egiten zuten, eta Gatzagako aldapa, gehienez, 45 km.-ko abiadan.

Zuhurtzia handiz gidatu ohi zuen beti Lorenzok, eta ez zuen sekula istripurik izan, sustoren bat edo beste izan ezik. Behin, Gatzagara bidean gelditu egin behar izan zuen trenea Marin parean, artalde bat ez harrapatzeko. Orduetik aurrera, eguberrietan bildots bat oparitzen zion Maringo artzainak.

Gaixotasun baten ondorioz, 60 urterekin hartu behar izan zuen jubilazioa, eta 1988an hil zen 83 urterekin.



Lorenzo San Vicente, eskumakoa, tren zerbitzuko inspektorea eta pikatzailearekin

Antixena Gaztetxeak 5 urte

Abenduaren 23an ospatuko dute 'Hasteko Bost' eguna



GAZTE ASANBLADA

Kultura edo gai sozialak landu nahi dituen edozein herritarrentzat erreferentzia da gaur egun Gaztetxea

Irailaren 5ean bete ziren bost urte Gazte Asanbladako kideek Antixenako etxea okupatu zutenetik. Ostalaritza Eskola eta MONE Negozio Eskola nahiz MIK Ikerketa Gunearen egoitza izandako eraikina hutsik zeramatzten bi urte, eta hildako lau parea haiei bizitza eman eta gune autogestionatu bat sortzeko asmoz sartu ziren bertara gazteak. Eraikina txukundu, egokitu eta funtzionatzeko modua finkatu ostean, abenduaren 22an zabaldu zituzten ofizialki Antixena Gaztetxeko



2012ko abenduaren 22an inauguratu zuten Antixena Gaztetxea

ateak herri osoarentzat, eta bost urte betetzen diren honetan, urtemuga festa berezia antolatu du Gazte Asanbladak. "Bost urte hauetan askotariko ekitaldiak (kontzertuak, antzerkiak, bertso saioak, hitzaldiak, ikastaroak, literatura saioak...) antolatu izan dira, eta bosgarren urteurreneko egitaraua aniztasun horren isla izatea nahi dugu. Hilaren 23an ospatuko dugu 'Hasteko Bost' eguna, baina askotariko ekitaldiak (ikusitaula) egongo dira hile osoan zehar"

EGUR-LAN
 AROZTEGIA
 LIMABAR S.A.L.
 BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
 TEL./ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
 www.egur-lan.es

smk
 san miguel kooperatiba
 943 781 217
 kale barría 8 - 20560 oñati
 www.sanmiguel.coop

Antixenak, hasteko 5 urte

Irailean urte bat gehiago bete zuen gure gaztetxeak, eta orain, abenduan, bost urte beteko dira herri osoari atea ireki genizkionetik. Bost urte hauek gaztetxea berotzeko sua pizten aritu gara, denetariko ekitaldiak egin ditugu horretarako eta herritar pila bat elkartu dira gure sugarren inguruan dantzatzera.

Antixenako suaren erregaiak asanblada eta autogestioa izan dira hasieratik, eta su horren berotasunak egunsentira dantzan iristeko ilusio, kemen eta indarrak eman dizkigu. Dantzaldi honek HASTEKO BOST urte baino ez ditu bete, hasteko diogu, bai, argi baitaukagu gure partetik ez duela etenik izango!

Garai ilunotan, geldi eta hotz nahi gaituztenen aurrean, gure sua zabaldu eta indartzeko gogoz gaude Antixenan. Autogestio eta asanblada gehiago botako dizkiogu suari, errebeldia eta borrokarako grin gehiago jaso ditzagun bueltan, desiratutako egunsentira dantzan iristeko modu bakarra dela ziur baikaude!

Hurrengo hilabetearen suaren berotasuna herri osora zabaltzen saiatuko gara, horregatik, deialdiei adi egon eta gurekin dantzatzera etorri!

Gora Antixena!
Gora gaztetxeak!

Oñatiko Gazte Asanblada



adierazi digute Gazte Asanbladako kideek.

Bost urte hauetako jardunaren balantze positiboa egiten dute gazteek. “Oñatin, gaur egun, kultura edo gai soziopolitikoak jorratu nahi dituzten herritarrentzako erreferentziatzeko gune bilakatu da gaztetxea. Askotariko ekitaldiak burutzen dira urtean zehar, eta bertako dinamikak lagundu egiten du gazteen arteko harremanak sendotzeko, elkarrengandik ikasteko eta, azken batean, gazteen sormena sustatzeko”.

Ostiralero (20:00) batzen den asanbladak kudeatzen eta koordinatzen du gaztetxeko dinamika, eta lan-talde ezberdinetan antolatzen dira: komunikazioa, taberna, sukaldea, talde teknikoa, garbiketa, diruzaintza...Dena den, garbi utzi nahi dute gaztetxea herritar guztiei irekia dagoela, eta edozein herritarrek edo eragilek proposatutako ekintzak antolatzen direla bertan.

ABENDUAK 1, OSTIRALA

19:00 Bertso Saioa: Miren Amuriza, Odei Barroso, Maider Arregi eta Aitor Bizkarra

ABENDUAK 2, LARUNBATA

21:00 *Hangover Fest-3*. Metal gaua. *Late to Scream*, *Hilotz* eta *Broken Legacy*

ABENDUAK 3, IGANDEA

17:00 Ane Gebara ipuin kontalaria eta eskulanak haurrentzat.

ABENDUAK 14, OSTEGUNA

True Cost dokumentalaren emanaldia.

ABENDUAK 15, OSTIRALA

22:00 ‘Supituki’ antzerki inprobisazio ikuskizuna

ABENDUAK 16, LARUNBATA

19:30 Kontzertua: *Guillotina* Kantabriako hardcore-punk taldea

ABENDUAK 17, IGANDEA

Euskal Herriko bertso finalaren emanaldia bazkariarekin.

ABENDUAK 18, ASTELEHENA

18:30 Irakurle taldearen saioa. Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* nobelaren inguruan, idazlea bertan dela

ABENDUAK 23, LARUNBATA

‘HASTEKO BOST’ EGUNA

11:30 Ekitaldi nazionala.

- Aureskua
- Topa
- Zuhaitz landaketa Jagoba Errekondorekin.

12:30 Poteoa

14:00 Bazkari herrikoa

16:00 NAN arrotzen jaurtiketa lehiaketa

18:00 Poteo musikatua

21:00 Kontzertua gaztetxean: *Zartako*, *Selektah Step*i (Bad Sound) eta *Afari Merienda*.

ABENDUAK 27, ASTEAZKENA

18:00 Hitzaldia. ‘Ekologiatik kritika Sobietar Batasunari eta marxismoari’. Gaztetxean.

ABENDUAK 28, OSTEGUNA

Txuletons taldearen kontzertua.

ABENDUAK 29, OSTIRALA

‘Ura eta energia’ Foruen enparantzan, 09:00.

Ibilbide zirkularra Jaturabe, Saratxo eta Aitzgaineko kanalen inguruan. Gaur egungo eredu energetikoaren inguruan hausnarketa egiteko aukera egongo da.

ABENDUAK 31, IGANDEA

DJ Gaua

ZURICH
M² del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEMBUAK, UBU PROTANTEAK, ARDIAK, PIHTURIA LANAK...
DISEÑATZAILER ETA MONTATZAILER EA
SUKALDEAK, HERRIARRA eta ASANZU GELAKO
OILATUA 12 B 4 esk. - 20500 OMAZI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77



“Turismoak 2 milioi euro uzten ditu Oñatin urtean”

15 urte bete ditu aurten San Juan kaleko turismo bulegoak eta 10 urte dira Arrikruzeko koba turismora zabaldu zela. Beraz, une egokia iruditu zaigu udal Sozioekonomia batzordeko buru Ana Martinekin eta Oñatiko Garapen eta Turismo Agenciako gerente Ikerne Altuberekin hitz egiteko, turismo arloan Oñatik dituen proiektu eta erronkei buruz.

Ia 16.000 bisitari jaso ditu aurten turismo bulegoak. Nola baloratzen duzue datua?

Iazko datuekin alderatuz, pittin bat behera egin du kopuruak, baina Gipuzkoa osoan gertatu da. 2016ko uda oso-oso ona izan zen, eta aurten ez da halako boom-ik izan.

Hala ere, Arrikruzten gora egin du bisitari kopuruak (15.000) eta Arantzazuko turism bulegotik ere beste 16.000 pasa direla kontuan hartuz, datu onak dira.

Hobetzeko aukerarik ba al dago. Noraino?

Bisitari kopurua handitzea baino inportanteagoa da, gure ustez, turistek egonaldi luzeagoak egitea Oñatin, eta bertako zerbitzu eta produktuak erostea.

Oñatik betidanik bultzatu duen turismo jasagarriaren ikuspuntutik interesgarriagoa dela uste dugu.

Nola lortzen da hori?

Turismo eskaintza aberastuz, eta zerbitzu ona emanaz. Udalarari dagokionez, bisita gidatuen katalogoa osatu dugu (ondare monumentala, Txokolateixia, naturguneko ibilaldiak...) eta turista segmento berriak erakartzeko azpiegiturak egokitu ditugu (autokarabana gunea, aterpetxea...). Bestalde, eragile pribatuak ere ahalegin handia egiten ari dira (inbertsioak, kalitate programak...) ostatu zerbitzua hobetzeko, eta bide horretan jarraitu behar dugu, eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanean sakonduz



Eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanean sakondu, eta turismo bulegoaren webgunean erreserba sistema bateratua eskaintzea interesgarria litzateke

beti ere.

Gaualdiei buruzko azken datuak ez dira txarrak.

Ez. Eustat-en azken datuen arabera, 2016an Oñatin egon ziren bisitariak batz bestea gau baino gehiago igaro zituzten bertan oporraldietan eta zubietan, eta hori datu ona da, Donostiakoa baino hobea, adibidez. Ikusten ari gara, jende askok nahiago izaten duela, Oñatin ostatu hartu eta bertatik irteerak egin, merkeagoa delako, hiriburuetatik hurbil dagoelako, eta zerbitzu ona eskaintzen dugulako.

Hala ere, abuztuan Oñati oso triste egoten da turistikoa izan nahi duen herri bat izateko.

Bai, hala da, baina garbi dago, abuztuan zabalik egoten diren ostatu eta jatetxeek oso ondo funtzionatzen dutela.

Udalak ahalegina egiten du bere zerbitzu guztiak zabalik mantentzeko, eta uste dugu ez zaiola behar besteko etekina ateratzen baliabide horiei.

Zenbatekoa da turismoaren inpakto ekonomikoa Oñatian? Zaila da datu zehatzak ematea, baina kontuan hartu behar da, Oñatik turismo bulegora etortzen diren bisitarietatik 9.500 estatu mailakoak direla eta ia 2.000 atzerritarrak, eta, estatistiken arabera, horietako bakoitzak, batz bestea, 129 €-ko gastua egiten du eguneko.

Horri gehitu behar diogu, erkidegotik datozen bisitariak (4.000) egiten duten gastua (30€ eguneko, batz bestea). Horrek guztiak 1,5 milioi inguruko gastua ematen du, urtean. Eta horri gehitzen badiogu Arrikutzeko eta Arantzazuko turismo bulegotik pastzen diren bisitari kopurua (beti ez da errepikatzen) 2 milioi inguruko inpaktoaz hitz egiten ari gara.

Zein bide erabiltzen duzue turistak erakartzeko?

Askotariko bideak. Kostaldeko ostatuetan zabaltzen dugu



Turista talde bat bisita gidatua egiten (Turismo bulegoa)

informazioa, koba turistikoaren sare ezberdinetan sartuta gaude, erakunde publikoek (*Basquetour...*) eta eragile pribatuek antolatzen dituzten kongresu eta azoketan parte hartzen dugu... Eta, jakina, azkenaldian ahalegin berezia egiten ari gara marketing digitalaren arloan. Webgunea (*oñatiturismo.eus*)

DATUA
1a 16.000
turista pasa
dira aurten
turismo
bulegotik

berritu dugu, informazioa bost hizkuntzatan eskainiz, eta zerbitzu ezberdinak *on line* kontratatzeko aukera emanez, besteak beste. Eta ahalegina egiten ari gara sare sozialetan gero eta presentzia handiagoa izateko.

Azpiegitura mailan nola dago Oñati?

Autokarabanentzako gunea eta Arantzazuko aterpetxearekin bete dugu segmento jakin bati begira genuen hutsunea. Eta, bestalde, ekimen pribatuak egin duen ahaleginari esker (besteak beste apartamentuak prestatuz), gaur egun aukera zabala eta kalitatekoa eskaintzen du Oñatik, bisitari mota guztiei erantzuteko modukoa.

Gure helburua edo erronka da orain, baliabide eta eragile guztien arteko elkarlana areagotzea, eta, adibidez, erreserba sistema bateratua eskaintzea Oñati turismoren webgunean, turistei ahalik eta erraztasun

ZATOZ INFORMATZERA!!

OÑATIKO
aukerarik zabalena

Arantzazuko Anna San Martin

Adosatuak Kurtzekua Kurtzekua

italde www.italde.com Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07

Lehen sektorearekin elkarlana sustau nahi dugu, beraien produktuei irteera emateko

gehien emate aldera.

Ari zarete horretan?

Aurten berri du gu webgunea eta, oraingoan, Arrikruzeko sarrerak eta bisita gidatuak *on line* kontratatzeke aukera jarri dugu, eta ondo funtzionatzen ari da. Gure nahia da aukera hori zabaltzea herriko zerbitzu ezberdinetara: ostatuak, jate-txeak, *merchandising*-a..., eta eragile pribatuek nahi badute, udala prest dago aurrerapausoak emateko ildo horretan. Gauza ona litzateke, webgunea sartzeko den bisitariak aukera horiek guztiak eskura izatea.

Bestelako erronkarik?

Ahalegin berezia egin nahi dugu Oñatin ekoizten diren produktuei irteera emateko eta, bereziki, lehen sektoreko (txakolina, gazta, txokolatea...). Elkarlana sustatu nahi dugu, beraien produktuak turismo bulegoan eskainiz, edo bisita gidatuak antolatuz ekoizpen guneetara...

Azken batean, monumentuez gain, bertako kultura, hizkuntza, nortasuna eta bertako produktuak ere erakutsi nahi ditugu, eta udala prest dago lehen sektorearekin batera aritzeko, eta baita artisauekin ere. Prest gaude proposamenak entzun eta aztertzeke.

“Arrikruzeko proiektua bizirik dago”



**Hamar urtetan
150.000 bisitari
jaso ditu**

Hamar urte bete dira Arrikruzeko koba turismora zabaldu zenetik, eta ordutik hona ia 150.000 bisitari jaso ditu. Zein balorazio egiten duzue?

Arrikruzeko proiektua abian jartzeko osatu zen Jarraipen Batzordeak finkatu zituen irizpideen arabera, ingurunea errespetatuko zuen turismo eredu jasangarria sustatzea zen helburua, eta, ildo horretan, helburuak betetzen ari dela uste dugu, eta Oñatira beste segmento bateko bisitariak erakartzeko traktorea izaten ari dela.

Lehenengo urteko 25.000 bisitari izan zituen eta, egia da, hurrengo urteetan behera egin zuela, hasierako boom efektua amaitu zelako eta krisiak ere eragin zuelako. Baina azken hiru urteetan buelta eman diogu eta goraka doa berriz ere.

Aurten ia 15.000 izango dira.

Arrikruzten inbertsio berririk egiteko asmorik ba al dago?

Arrikruz gauza bizia da, eta proiektua bizirik dago. Azken urteotan Espeleo-abentura erako bisitak egiten hasi gara, ohiko bisitetan ikusten ez diren galeriak erakutsiz, eta ikastetxeekin ere ari gara lanean. Hau ere inportantea da, gero neska-mutiko horiek gurasoekin edo aiton-amonekin bueltatzen direlako.

Bestalde, hamar urte hauetan hainbat ikerke lan ere burutu dira Arrikruzten (klima, geologia...), eta hortik iristen zaigun informazioa ere oso baliagarria da etorkizunera begira. Baina, oraingoan ez da aurreikusten inbertsio handirik egitea Arrikruzten.

Antzeztutako bisita gidatua, eta Unibertsitatea kandelen argipean



Hamabosgarren urtemugaren harira, turismo bulegoak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Hala, abenduaren 2an (12:00), antzeztutako bisita gidatua egingo da Irazan taldekoekin. Dohanik da. Hilaren 6tik 10era ‘Oñatiko altxorak’ ikusteko bisita gidatu bereziak eskainiko ditu turismo bulegoak. Abenduaren 8an, XVI. mendeko Oñati gauaz ikusi eta sentizeko aukera egongo da. Hilaren 17an (10:00) San Migel erroten uruna ixo eta Irazola okindegian ogia egiteko aukera egongo da. Abenduaren 23an (18:00-20:00) Unibertsitatea kandelen argipean bisitatzeko aukera egongo da, eta hilaren 29an (10:00) bisita berezia eta tailerra egingo da Arrikruzten, xaguzarrei buruz gehiago jakiteko. Informazioa: www.onatitourismo.eus eta [Facebook/onatitourismoa](https://www.facebook.com/onatitourismoa).

Ramon Irizar, 2
Tel. 943 08 81 84
 Candeluka

COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 000
 onati@coinbroker.eus
 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

Herriko komertzioa indartu eta Oñati berdeago bihurtu



Herriko komertzioetako erosketak eta jatetxeetako janari eskaerak online egiteko aukera dago Oñatin



www.bertanerosi.com

webgunean egin behar dira eskaerak eta auto elektrikoan egiten da banaketa

EderMobility Services enpresak herriko denda eta jatetxe batzuetako eskaerak *online* egiteko zerbitzua jarri du abian, udaleko Sozioekonomia departamentuaren eta Ulmaren laguntzarekin. Herriko denda eta zerbitzuak indartzea da asmoa, eta, bide batez, Oñati berdeago bat sustatzea, auto elektrikoa erabiliz egingo baita banaketa.

EROSKETAK ETA JANARIA

Eskaerak egiteko www.bertanerosi.com webgunean sartu behar dugu, eta bi atal nagusi aurkituko ditugu bertan: erosketak egiteko komertzioak, bateik, eta janaria eskatzeko jatetxeak, bestetik.

Komertzioen atalean, eguneroko erosketak egin ahal izateko hainbat denda eta zerbitzu daude (fruta dendak, harategiak, okindegiak, farmaziak, lora dendak...). Hauekaren bat sakatuz gero, bertan erosi ahal izango ditugun produktuak agertuko zaizkigu. Jatetxeen atalean berriz, ogitartekoak, razioak eta prestatutako jakiak eskaintzen dituzten ostatuen zerrenda aurkituko dugu.

BANAKETA NAHI DUZUN TOKIRA

Banaketa ez da bakarrik etxe partikularretara mugatuko; lantokira, soziedadeetara edo herritarrek nahi duten tokira eramango zaizkie erosketak, berdin herrigunean bada edo landa auzoetan.

Astelehenetik ostiralera eta larunbat goizetan egingo da banaketa zerbitzua. Online eskaera bakoitzeko guztira 2,5€ ordaindu beharko da, nahi beste dendatetik eta nahi beste produktu eskatuta ere. Eskatutakoa egunean bertan edo hurrengo egunean jaso ahal izango dira, eskaera egiten den orduaren arabera, edota bezeroak jaso nahi duen orduaren arabera.



EROSKETAK OÑATIKO
DENDETAN - Compras en el comercio de OÑATI



PINTXOAK, OGITARTEKOAK,
RAZIOAK... - Pinchos, bocadillo, raciones...



Herriko hainbat saltoki eta jatetxe-tako eskaintza aurkituko dugu webgunean



Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-Igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libertzak
tel: 677 31 20 57 • email: amailgartua@gmail.com • Oñati

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaiome San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



Potx eta Lotx

Oñatiko labeldun pailazoak

- » Abenduaren 28an estreinatuko dute Gaztelekuan, 'Herriko festetan' ikuskizuna
- » Aurretik, izen bereko Cda aurkeztuko dute Durangoko Azokan

Adi Oñati!

Adi Euskal Herria! Pailazo bikote berria daukagu: Potx eta Lotx. Ia bi urteko lanaren ondoren, eskenatokiara jauzi egiteko ordua iritsi dela erabaki dute Josu Zubia (*Potx*) eta Itziar Arkauzek (*Lotx*), eta abenduaren 28an estreinatuko dute, Gaztelekuan (17:00), beraien lehenengo ikuskizuna: 'Herriko festetan'.

Auskalomendi izeneko herrian gertatzen da istorioa. Urteko jai egun nagusia da, eta merendola prestatzeko ardura izango dute Potxek eta Lotxek, aurretik beraien amonak eta osabak egin izan duten moduan. Ohore eta erronka handia da eurentzat, baina despiste handi bat izango dute; merendola eramatea ahaztuko zaie, eta hor hasiko dira gorabeherak eta buruhaustek gure pailazoentzat.

75 minutu irauten du eta antzerkia, dantza, magia eta musika uzartzen dituen ikuskizuna da, familia osoari zuzenduta, bereziki gaztetxoenei, baina helduentzako keinu ugari dituena. *Potx* eta *Lotx* pailazoekin batera Danel Terán eta Ander Murillo gazteek ere parte hartuko dute ikuskizunean, pertsonaia ezberdinei bizia emanez.

Ikuskizunean erabiliko dituzten dekoratuak eta CDaren azaleko diseinuak Pernan Goñi oñatiarrak egin ditu.

Oñatiko estreinaldiaren ondoren, ikuskizuna herriz herri zabaltzeko asmoa dute Lanku Kultur Zerbitzuak elkartearen eskutik.

NI moda

MODA BEREZIA


Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



CDa aurkeztuko dute Durangoko Azokan

Estreinaldia iritsi aurretik, ikuskizuneko abestiak bil-tzen dituen CDa aurkez-tuko dute Durangoko azokan. Ikuskizunak bezala, *Herriko Festetan* du izena diskoak, eta hamabi kanta ditu, Josu Zubiak berak sortutakoak, Oñatiko Txinparta bertso eskolakoentestuekin.

Durengoko azokaren ondoren Mizke eta Kiku goxoki dendetan eta Elkar-en salmenta puntuetan eskuratu ahal izango da CDa 10 €-tan.

ALGARAZ PROIEKTUA

Clown-aren unibertsoa gizarteratzeko egitasmoa

Beraien ikuskizuna Euskal Herri osora zabaltzea izango da Potx eta Lotx pailazoentzako helburua, baina hori baino gehiago ere bada Josu Zubiak eta Itziar Arkauzek sortu duten



ITZIAR ARKAUZ ETA JOSU ZUBIA

Pailazoak bere baitan dituen baloreak oso lagungarriak dira eguneroko arazoei aurre egiten laguntzeko

Algaraz proiektua. *Clown*aren unibertsoa gizarteratzea da beraien asmoa; pailazoentzako izaera eta espiritua ahalik eta herritar gehienengana helaraztea, alegia.

Urte eta erdi daramate ikasten Valentziako *Los hijos de Augusto* pailazo eskolan eta konbentziturik daude pailazoak bere baitan dituen baloreak oso lagungarriak direla eguneroko arazoak gaingaitzen laguntzeko eta gure barruan dugun onena ateratzeko.

Horregatik, zuzeneko ikuskizunetaz gain, tailerak, ikastaroak eta *clown*-ferentziak emateko asmoa dute herritar guztiei zuzenduta (ikastetxeak, elkarteak, jubilatuek...).

Dagoeneko egin dituzte aurreneko saioak Mondragon Unibertsitatean. Harremanetarako: potxetalotx@gmail.com edo lanku@lanku.eus.

Kafe OTAMENDI Taberna

Beste urtebetez, aurten ere. guran erakutsi duzuen konfidantza eskertu nahi dizuegu

GABON JAI ZORIONTSUAK!

Martzelino Zelaia 1 • Tel.: 943 78 19 49

Kiroldegia berritzeko proiektua idazteko 300.000 € bideratuko ditu udalak 2018an

» Gune heze osoa berritu eta igerilekuari bi edo hiru kale gehitzea da udalaren asmoa » Lanak 2019an hasiko lirateke

Gauzak argitzen hasi dira kiroldegia berritu eta, zehazki, igerilekua handitzeko egitasmoaren inguruan. Datorren urtera begira EH Bilduren gobernu taldeak aurkeztu duen aurrekontu proposamenean 300.000 euroko diru atala jasotzen da kiroldegian egin beharreko berritze lanen exekuzio proiektua idazteko.

Gobernu taldearen asmoa da kiroldegiko gune heze osoa berritzea, igerileku handiari bi edo hiru kale gehituz. Zubikoako teilatua berritzea ere beharrezkoa ikusten du EH Bilduk. Dena den, lehiaketara aurkezten diren proposamenak aztertu ondoren zehaztuko dira egin beharreko lanak. Lanen kostua ezagutu ondoren, urteanitzeko inbertsio plana prestatuko du udalak, eta 2019an hasiko dira berritze lanak.

OLAITURRI ESTALI

Olaiturriko gunea estali eta erabilera anitzeko (kontzertuak, ikuskizunak, kirol ekitaldiak, azokak...) gune funtzionala prestatzea ere jasotzen du EH Bilduren aurrekontu proiektuak. Gune horren azpian parkina



Igerileku handia eta txikia, sauna gunea, aldagelak eta gimnasioa berritzea da udalaren asmoa

eraikitzeo aukera ere jasotzen da, eta, ildo horretan, udalak gutun bana igorri die inguruko bizilagunei, garaje plaza bat erosteko interesik izango ote luketen jakiteko. Oraingoan, 50.000 euroko diru atal bideratuko da Olaiturri estaltzeko lanen proiektua idazteko.

AUZUNEA BERRITU

Gainerakoan, azken urteotan egin diren lanei jarraipena emanez, 240.000 €-ko partida bana bideratuko da San Lorenzo eta Zubillagako urbanizazioak berritzera, eta 30.000€-koa Olakukako irisgarritasun plana idazteko.

Alde zaharreko etxebizitzak birgaitzeko programa pilotua,

Mendiko Kale eraberritzeko proiektua, eta Kasablankan jolas-gunea egokitzeko diru-atalak ere jasotzen dira EH Bilduren aurrekontuetan, eta baita Araotzeko auzo-etxea, natur eskola eta Urgaineko sotoa berritzeko ere. Etxaluze parkea berritzeko 400.000€-ko diru atala ere txertatuko da aurtengo aurrekontutik.

Gastu sozialari dagokionez, gizarte larrialdietarako eta programa psikosozialerako diru atalak indartuko dira, gobernu taldeak aurreratu duenez.

18,7 MILIOI

Horiek guztiak gauzatu ahal izateko, 18,7 milioiko aurrekontu proposamena aurkeztu du EH Bilduk. Aurrekontu orekatua da, aurrezki arrunt garbia duena, eta zorpetze maila oso baxua.

Aurrekontuak osatzeko orduan, herritarrek egindako ekarpenak azpimarratu eta eskertu nahi izan ditu gobernu taldeak. Herriko gune publiko ezberdinetan jarritako buzoietan ehundik gora ekarpen jaso dira, eta oso kontutan izan dituztela azaldu du EH Bilduk.



Olaiturri estali eta erabilera anitzeko gune bezala egokitzeko proiektua idazteko 50.000 euro bideratuko ditu udalak 2018an

ARANBURU ALTZARIAK
 Kale Zaharra, 21
 Kale Barria, 11
 Lizaur A., 7
 OÑATI
 Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

Oinetakoak, Moda eta Osagarriak

KLAU

Klau

Atzeko Kale 6 • Tel.: 943 04 50 66 • www.klaumoda.com

Bizikleta eta patineteen arautegia eta Olakua auzoa eraberritzea, EAJren lehentasunen artean

2018ko udal aurrekontuei begira, gobernu taldeari egin dizkion proposamenen berri eman zuen EAJk joan den astean. Adin guztiatara egokitutako herri bizia eraikitzea da jeltzaleen helburua, eta horretara zuzendutako hainbat egitasmo aurkeztu dituzte, lau ardatz nagusiren inguruan.

Herritarren bizi-kalitatea eta segutasunari dagokionez, bizikleta eta patineteen arautegia behin betikoz onartzea eskatu dute. Bestalde, Olakua auzunea eraberritzeko plan orokorra idaztea, herriguneko nahiz landa auzoetako gune ilunak argitzea, eta udaltzain zerbitzua larunbat gauetara zabaltzea proposatu du EAJk, eta baita ere adin guztiatako pertsonen arteko elkarbizitza sustatzea helburu duen 'Euskadi Lagunkoia' programa Oñatin aplikatzea.

Osasuna eta kirol arloan, kiroldegiko igerilekuan 2-3 kale gehitzeak du lehentasuna EAJren ustez. Horrez gain, igerileku irekia izango duen aisialdi gune baten proiektua lantzea eskatzen dute, eta San Martinen korrika egiteko bidea egokitzea, eta Urrutxun atletismo pista.



Sozioekonomiaren arloan, landa auzoetako mugarrak definitzea, baso-pisten inbentarioa eta hauen inguruko ekintza plana, negozio txikien belaunaldi erreleborako laguntza programa, eta Turismo Plana egitea proposatzen dute jeltzaleek.

Herri bizia eta parte hartzailea sustatu asmoz, Parte-Hartze Plana idaztea proposatu du EAJk, herritarrek harrigintzan inplika daitezkeen beharren inguruko ekintza plana osatzea, eta urteko Kultura sariak sortzea ere proposatu dute. Oñatiko euskeraren hiztegia mugikor bidez kontsultatu ahal izateko app-a sortzea, Gazte-Plana egitea, eta gazteen aisialdia edukiz betetzeko ikastaro eta aktibitate ezberdinak programatzea eskatu dute jeltzaleek.

Herri bizia eta parte hartzailea sustatu asmoz, Parte-Hartze Plana idaztea proposatu du EAJk, herritarrek harrigintzan inplika daitezkeen beharren inguruko ekintza plana osatzea, eta urteko Kultura sariak sortzea ere proposatu dute. Oñatiko euskeraren hiztegia mugikor bidez kontsultatu ahal izateko app-a sortzea, Gazte-Plana egitea, eta gazteen aisialdia edukiz betetzeko ikastaro eta aktibitate ezberdinak programatzea eskatu dute jeltzaleek.

Aloñako gurutzearen oinarria konpondu egingo du udalak

Ia bi urte igaro dira oinaztu batek Aloñako gurutzearen oinarria txikitu zuenetik, eta hainbat herritarren eskaria aitzat hartuz, udalak esku hartzea erabaki du. "Berez, ez da udalaren konpetentzia gurutzea konpontzea, eta ikur elijioso bat izanik, beharbada herritar batzuk ez dute begi onez ikusiko, baina, Oñatik duen ikur nagusietako bat ere bada, eta guztion ardura da ondare kultural, artistiko eta paisajistikoa zaintzea" adierazi du udal gobernu taldeak.



Hasiera batean lanak auzolanean egiteko aukera aztertu zen, baina harriztar handiak mugitu behar direla ikusita, eta horrek makineria eta langile kualifikatuak eskatzen duenez, udalak ekimena hartzea erabaki du. Hala, udalak enpresa bat kontratatuko du lan astunenak egiteko, eta auzolanean egingo dira beste lan txikiago batzuk. Udalak eskatu ditu jada aurrekontu ezberdinak, baina negua gainean dugula ikusita, seguruenek udaberrirarte atzeratuko dira lanak.

Esku-hartze sozioedukatiboa egiteko zerbitzua kontratatzeko deialdia

Babesgabatasun egoeran dauden adingabeekin eta hauen familiarekin, eta gizarte bazterketa arriskuan dauden nerabe eta helduekin lan sozio-educatiboa eta psikosoziala egiteko zerbitzua kontratatzeko deialdia egin du udalak. Bi urterako kontratua izango da, beste bi urtez luzatu ahal izango dena. Lehen urterako kontratuaren prezioa, BEZ barne, 180.000 eurokoa izango da, eta kopuru hori beherantz hobetu ahal izango dute lizitatuak. Eskaintza ekonomikoaz gain, proposamen teknikoa ere baloratuko da esleipena egiteko orduan. Deialdia GAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epea egongo da eskaintzak aurkezteko udal erregistroan. Hasi

OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

ARGITAGARBI

Olakua 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com

Almaraz
inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".



Hainbat herritarrek agerraldia egin zuten Pariseko mobilizazioari babesa adierazteko



Parisera joateko autobusa antolatu du SAREK

Bagoaz, Etxerat eta Sarek antolatuta, 'Bakea Euskal Herrian: orain presoak!' lelopean abenduaren 9an Parisen egingo den elkarretaratze handian parte hartzeko autobusa antolatu du Oñatiko Sarek. Abenduaren 3a baino lehen eskuratu behar dira tiketak, Euskaldun Berria aretoa (Bidebarrieta 18), 18:00etatik 20:00etara. Prezioa: 65€ (langabeek 35€).

Bake bidean urrats berri bat eman eta presoek nahiz senideek pairatzen duten salbuespenezko araubideari amaiera ematea eskatuko zaio estatu frantziarrari Pariseko kaleak betez. Parisera joan ezin dutenek 5€-ko bonoa eskatuz ere babesu dezakete ekimena.



Ardura denona da

Oñatiko Sare Feministak deituta, makina bat herritar batu zen plazan azaroaren 25ean, martxismoak eraildako emakumeak gogoratu eta indarkeria sexistaren aurkako neurri erreal eta eraginkorrak eskatzeko. Ereku publikoan urrats inportanteak eman badira ere, gertu ditugun tesuinguruetan arreta jarri beharra daukagula gogorarazi zuten, denon ardura delako martxismoari aurre egitea. Konpromisoa kolektibizatu behar dela adierazi zuten.

Jazarpenari aurre sormenaren bidez

'Biolentzia 0, 0 urtetik' lelopean jazarpenari aurre egiteko 'Adi Lagun!' ekimena burutu dute Elkar Hezi ikastetxean, artea eta sormena ardatz hartuta. Lehen Hezkuntzako 170 bat ikaslek eta gurasoen ordezkaritza zabal batek parte hartu dute proiektuan, Setem GKEa eta Eider Eibar ilustratzailearen laguntzarekin.

Hasteko, pertsonaia ezberdinak sortu dituzte ikasleek, Eidearren laguntzarekin eta, ondoren, eguneroko bizitzan gertatzen diren gora-behera eta egoera gatazkatsuetan jarri dituzte. Egoera horien inguruan gogoe ta egin eta gatazkak bideratzeko, eta, ahal den heinean, prebenitzeko, modu dialogiko eta baketsuak jorratzea izan da ekimenaren helburua.

Azkenik, ikasle eta gurasoen artean orma-irudi erraldoietan irudikatu dituzte pertsonaia eta egoera horiek, eta eskolan eskegi dituzte, denon begi bistan, eguneroko jardunean gogoan eta presente izan ditzaten.

Saharar errefuxiatuentzako materiala biltzeko kanpaina abian da

Tindouf-eko errefuxiatu kanpalekuetan bizi diren saharatarrei zuzendutako eskola materiala biltzeko kanpaina antolatu du Hermansoloña GKEak. **Koadernoak, boligrafoak, margoak, motxilak** eta **panpinak** batu nahi dituzte, eta horrekin batera, baita **lo-zakuak**, kirolerako **zapatilak**, haur **jaioberrientzako** jantziak, eta umeentzako **neguko erropak** ere. Kanpainarekin bat egin duten **Haritza, Irizar, Altuna, Urzelai, Hirukar** eta **Eurodendan** utz daiteke materiala, edo, bestela, **Hermansoloña** Kale Zaharrea duen lokalean, beti ere **abenduaren 16a** baino lehen. Kontu korrante bat ere zabaldu dute Laboral Kutxan (30350005360051037392) diru ekarpena egin nahi dutenentzat. Materiala erosi eta garraio gastuei aurre egiten laguntzeko erabiliko da dirua.



Abenduaren 16 arte luzatuko da kanpaina

Argazkia: DV



Errefuxiatuen aldeko elkartasun ekintza

» **ABENDUAK 21, OSTEGUNA**
Foruen plazan (17:00-23:00)

Oñatiko Gestio Heziketako bigarren mailako ikasleek ekitaldi solidarioa antolatu dute abenduaren 21erako. Arratsalde-iluntze partean (17:00-23:00) Foruen plazan egongo dira kolore eta diseinu ezberdinetako kamisetak, poltsak eta bestelakoak saltzen. Txosna bat ere jarriko dute jan-edanekin, eta zozketa bat ere antolatuko dute, (bi pertsonentzako afaria Zumeltzegi dorrean). Egunean zehar batzen duten dirua Hotz Oñati-rentzat izango da, errefuxiatuen bizi baldintzak hobetu eta baliabideak eskaini ahal izateko. Beraz, herritar guztiak gaude gonbidatuta parte hartzera.

Elkar Hezi Taupadak - Elkartasun Azoka / ABENDUAK 16

Urtero bezala, 'Elkartasun Taupadak' jardunaldiak antolatu ditu aurten ere Elkar Hezi ikastetxeak. Aurtengo jardunaldien ardatza 'Begirada kontzienteak' izeneko erakusketa izango da, kultur etxean ikusgai egongo dena abenduaren 11tik urtarrilaren 7ra.

GOGOETA KRITIKOA

Gure egungo garapen ereduari buruzko gogoeta kritikoa egin nahi duen erakusketa da. 2012an *World Press Photo* saria lortu zuen Fernando Moralesen argazkien bidez, munduko leku askotan ematen diren errealitate bidegabekal ikusiko ditugu, eta gure bizimoduarekin errealitate horiek betiketozten laguntzen dugula ohar-tarazten digu erakusketak.

Justizian, zuzentasunean, tolerantzian eta elkartasunean oinarritutako beste gizarte eredu bat eraikitzea geure esku ere badagokela erakutsi nahi du erakusketak.



Elkar Heziren eskutik 'Begirada kontzienteak' erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean, abenduaren 11tik urtarrilaren 7ra, egunero 18:00-20:00

ELKARTASUN AZOKA

Abenduaren 16an, Elkar Heziko Batxi-2ko ikasleek antolatutako Elkartasun Azoka egingo da foruen enparantzan. Gobernu Kanpoko hoguei bat erakunderen lana ezagutu eta produktuak erosteko aukera egongo da bertan. Gainera, Elkar Heziko guraso, ikasle eta langileen gozogintza eta artisautza postuak, txozna eta era askotako tailerrak ere egongo dira goiz osoan zehar.

Herriko artisauen azoka

Abenduak 17, Foruen plazan (10:30-14:30)

Azken urteetako ohiturari jarraituz, herriko artisauen azoka egingo da abenduaren 17an, igandea, Foruen enparantzan (10:30-14:30). Bitxiak, panpinak, estanpatuak, kremak... aukera ona bertako artisautza ezagutu eta Gabonetako oparitxoak erosteko. Animatu!



Erakusleiho lehiaketak 10 URTE

» Sari berezia (500 €) zozketatuko da aurten, sarituak izan ez diren establezimenduen artean

Udalak Oñatiko X. Erakusleiho Lehiaketa antolatu du, Txanda elkartearen laguntzarekin. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbidea. Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihok prest egon beharko dute abenduaren 5erako, eta hala mantendu beharko dute abenduaren 31ra arte, gutxienez.

PARTE HARTZEA SARITU

Guztira 4.500 euro emango ditu saritan udalak. Lehenengo bost sariak (1.500, 1.000, 500, 300 eta 200 eurokoak) epaimahaia erabakiko ditu. Horiez gain, herritarren saria (500 €) egongo da, eta aurten, berritasun moduan, 500 euroko sari bat zozketatuko da lehiaketan parte hartu eta saririk jaso ez duten establezimenduen artean. Modu horretan parte hartzea saritu nahi du udalak.

Epaimahaia Gipuzkoako Bazkondeko teknikari batek eta erakusleiho-apainketa arloko profesionalak osatuko dute. Erakusleihoan denda edo zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira, eta honako atal hauek baloratuko dira: konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna.

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 23an egingo da, udaletxeko areto nagusian, eguerdiko 13:30etan.

HERRITARREN SARIA

Herritarren saria hautatzeko bi bide egongo dira:

• **Internet** bidez, Oñatiko udalaren webgunean (www.onati.eus) edo ondoko QR kodea eskaneatuta aurkituko duzun formularioa beteta.

• Ondoko orrian dauden **hautaketa-txartela** bete eta toki hauetakoren batera eramanda: udaletxeko harrera zerbitzua, turismo bulegoa, edo udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12).

Herritarren sarirako bozkak **abenduaren 20a** baino lehen eman behar dira. Pertsona bakoitzeko **bozka bakarra** onartuko da. Bozka ematen duten pertsonen artean **200 euroko** saria zozketatuko da sari banaketa ekitaldian.



Trikitx jostailu eta paper dendak irabazi zuen iaz lehen saria eta herritarrena. Behean saritutako guztiak eta udal ordezkariak



PALMARES A

2008

- 1. sariaMAIBI
- 2. saria.....URTXIN
- 3. saria.....LETAMENDI
- Herritarren saria.....KIMU

2009

- 1. sariaKIMU
- 2. saria.....LETAMENDI
- 3. saria.....SESIÑENA
- Sari berezia.....TXOKOLATEIXIA
- Herritarren sariaJUANITOSA
- Herritarren saria.....KIMU

2010

- 1. saria.....LETAMENDI
- 2. saria.....MARKU
- 3. saria.....URRUTIA
- 4. sariaMAIBI
- 5. saria.....JUANITOSA
- Sari berezia.....TXOKOLATEIXIA
- Herritarren sariaMARKU

2011

- 1. sariaKIMU
- 2. saria.....BELLOTZA
- 3. saria.....AMALUR
- 4. saria.....KUKUMIKU
- 5. sariaBARUE
- Sari berezia.....TXOKOLATEIXIA
- Herritarren sariaMARKU

2012

- 1. sariaKIMU
- 2. sariaBARUE
- 3. saria.....SESIÑENA
- 4. saria.....AMALUR
- 5. saria.....KUKUMIKU
- Sari bereziaMAIBI
- Herritarren saria.....KIMU

2013

- 1. sariaJUANITOSA
- 2. sariaBARUE
- 3. saria.....URRUTIA Gizonak
- 4. saria.....LETAMENDI
- 5. sariaSUSTRAI 1
- Sari bereziaJUANITOSA
- Herritarren saria.....KIMU

2014

- 1. sariaJUANITOSA
- 2. saria.....ANTXON
- 3. saria.....TXOKOLATEIXIA
- 4. sariaURRUTIA Gizonak
- 5. saria.....URTXIN
- Sari bereziaLUAR
- Herritarren sariaJUANITOSA

2015

- 1. saria.....AMALUR
- 2. sariaKIMU
- 3. sariaBARUE
- 4. sariaURRUTIA Gizonak
- 5. saria.....MARKU
- Sari berezia.....TRIKITX
- Herritarren sariaMARKU

2016

- 1. saria.....TRIKITX
- 2. saria.....BELLOTZA
- 3. saria.....URTXIN
- 4. sariaKIMU
- 5. saria.....D'or ESTETIKA
- Sari berezia.....BELLOTZA
- Herritarren sariaTRIKITX



OÑATIKO X. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 20a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 EUROKO SARIA zozketatuko da**

.....
Sinadura

OÑATIKO X. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 20a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 EUROKO SARIA zozketatuko da**

.....
Sinadura

OÑATIKO X. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

NIRE BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 20a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 EUROKO SARIA zozketatuko da**

.....
Sinadura

OHARRA: Pertsona bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Parte hartzen duten guztien artean 200€ zozketatuko dira.



Jola Sawicka (Polonia) eta Deborah Kim (Australia) zutik, eta Pamela (Mexiko) eta Emma Hyndman (Estatu Batuak) eserita, Roberto Altuna irakaslearekin.

Lege-soziologia masterreko ikasleak euskara ikasten

Iaz hasitako bideari jarraituz, aurten ere Lege-Soziologiaren Nazioarteko Institutoan masterra egiten ari den ikasle talde bat aritu da euskara ikasten udal euskaltegian.

Polonia, Mexiko, Estatu Batuak eta Australiakoak jatorriz, irailean iritsi ziren Oñatira eta bost astez aritu dira euskara ikasten, oinarrizko ezagutza maila lortu nahian. “Kultura eta hizkuntza propioak dituen herrialde batera zoazenean, gutxienez, interesa agertu behar duzu eta, ahal bada, ikasi” esan digu Jola poloniarrek.

Emma estatubatuarrek bazuen euskararen berri, bere ama Sokoakoa (Lapurdi) delako, eta aitona zenak euskaraz hitz egiten zuelako; baina beste hirurentzat erabat ezezaguna zen euskara, Oñatira iritsi arte. “Ezberdina da; oso polita, baina oso zaila”, bat etorri dira laurak. “Misterio puntu bat ere badauka” gaineratu du Jolak, “jatorria ezezaguna delako; oso berezia da ikustea hitz eta izen askok lurra-ekin duten lotura. Oso interesgarria da”. “Euskal identitatearen ikur bezala hizkuntza mantentzeko ahalegina ere oso txalogarria da” gaineratu du Emmak.

Ikastaro motza egin dute, hemendik aurrera masterrean zentratu behar dutelako burubelarri, baina pozik daude ikasitakoarekin. “Denda edo taberna batera goazenean gauzak euskaraz eskatzen ikasi dugu” dio Pamelak; “kafe bat, mesedez; ardo bat, bi zurito, kroketak... Eta beste hainbat esaldi ere bai: goazen etxera, goazen tabernara...”.

Apirilera arte egongo dira gure artean. Oso gustura omen daude Oñatin. “Herri txikia da, baina oso polita, eta jendea oso atsegina” dio Pamelak. “Desberdina eta berezia da euskal kultura; elkarte gastronomikoak, kuadrillak... Esperientzia berezia izaten ari da” gaineratu du Deborah-k. “Maite dugu Oñati eta euskal kultura” aitortu dute laurak.



Zubi Alde elkarteak 50 urte bete ditu

Ramon Irizar kalean dagoen Zubi Alde elkarteak 50 urte bete ditu aurten. Urriaren 31n ospatu zuten urtemuga borobila mahaiaren bueltan, geurean ohitura den legez, eta elkartearen sortzaileetako bi omendu zituzten: Pedro Altuna eta Jose Luis Txintxurreta.

1967ko urriaren 31n inauguratu zuten Zubi Alde elkarte, Zubia sendiak utzitako lokalean. Aurretik ikuilu eta banastaginen artisautza tailer bezala erabilitako lokala zen, eta berau egokitu aurreko bilerak (estatutuak idazteko, besteak beste) Etxeberria jatetxean egin zituzten. Lagunarteko elkarbizitza hobetzea aipatzen da estatutuetan, elkartearen helburu nagusien artean.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Hiru gazte falta dira oraindik Altsasun

Duela urtebete Oñatz Bengoetxea gizonen lau t'erdiko txapelketaren finalera pasatzekotan zen gero irabazteko, urtebete falta zen oraindik Euskal Herriko bertsolaritza txapelketan norbaitek Maialen Lujanbiori nagusitasuna joka ziezaion, Huntza taldea bere lehen diskoa aurkeztekotan zen eta Altsasuko ferian guardia zibila gure historiaren beste atal beltz baten lehen lerroak izkiritatzen hasia zen. Hilabete eskas lehenago bi txapeloker Altsasuko ferietan ongie-torriak ez zirela bazekiten taberna batean sartu ziren giroa berotzera, eta probokazio horren ondorioak paitratzen hastekoak ziren herri horretako 8 gazte, zein Altsasuko herria bere osotasunean.

Aurtengo azaroaren 14ean 8 gazte horietako hiru falta dira oraindik Altsasun. Adur, Oihan eta Jokin bahituta eta dispersatuta daude estatu espainolaren espetxeetan. Hiru familia oraindik behartuak dira asteburu ehundaka kilometro eginaz bizia jokatzerara, hiru kuadrilak lagun bana daukate faltan, ferietan argazkiak ugaritu dira, baina hiru kide falta izan zaizkie, eta Sakanako herriak gogotik aldarrikatu du berriz ere etxea dela dagokien lekua eta ez auskalo nongo ziega iluna. Eta presentzia poliziala jasanezina dela eta nazkatuta daudela, eta ez dutela horrelako auzi gehiago jasan nahi, eta sardinzaharrek, besteren arten, ospa egin behar dutela bakerik izango bada eskualde horretan.

Fiskalak zortzi gazteentzat guztira 375 urteko espetxe zigo-

rra eskatzen du. Madrilan, Entzutegi Nazionalean, gero eta fama-tuagoa bihurtzen ari den Carmen Lamela epaileak gidatutako antzezpenean. Baltasar Garzón berria itxuraz, komeni ez den lekuan muturra sartzen ez duen artean bederen. Juez estrella bat,

zerbitzari leiala. Jordi Cui-xart eta Jordi Sanchez Catalunya-ko Omium Cultural eta Assemblée Nacional Catalana erakunde zibiletako buruak kartzelaratu dituen berbera. Oretetako hiru gazte espetxean izan dituen duela gutxira arte Iruñean manifestazio baten ostean atxilotu zituztelako. Eta abar. Juez estrella, alegia.

Fan Hemendiketig egiten dugun irakurketa ziur gaude herritarren gehiengo zabalak konpartitzen duela. Altsasuko bezalakorik, Iruñeakoa bezalakorik, Catalunya-ko bezalakorik eta gure herriaren historiako beste orrialde beltz larregi bezalakorik ez idazteko inoiz gehiago, ezinbestekoa da guardia zibila presentziarekin behingoz eta betiko bukatzea. Ez dago hori bermatuko duen beste modurik, bakean biziko bagara. Ez

dago duela zenbait hamarkadataro gertaeretara jo beharrik desager daitezela aldarrikatzeko, arrazoiak soberan izaten jarraitzen dugu beraien presentzia indarrez arbuiatzen segitzeko. Soberan dauzkagulako, beldurra eta mehatxua hedatzea beste zereginik ez daukalako indar armatu espainiar honek.

Altsasukoak aske! Fan hemendik!

Odei Irigoien eta Julen Aranburu



Altsasuko bezalakorik berriro gerta ez dadin, ezinbestekoa da goardia zibilaren presentziarekin behingoz eta betiko bukatzea





Etxe-Aundi
Hotela - Jantokia

Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkia: Kontzejupetik

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

IÑAKI BERISTAINI, AGUR

Lourdes Idoiaga, Marijo Etxegoien eta Amaia Erostarbe. EAJren udal-taldea.

Iraila eta urria ez dira izan hotzak Iaurtengo urtean. Bero samarrak izan dira, eta egun sargoriak ere egon dira. Egun horietako batean, uda agurtu berritan, joan da Iñaki Beristain anaia frantziskotarra ere, soseguaz, “Jaunaren esanetara”.

Iñakik, fedetik, euskal kultura edukitu du beti bihotzean eta buruan. Hala ere bizi izan dugu harekin elkartzeko aukera izan dugunetan. Esaterako, Gandiaga Topagunean “Arantzazuko arte-lantegia” erakusketa zabaldu zenean orain urte eta erdi. Hala, erakusketarako argitaratutako katalogoa eskura eman (hainbat testu eta argazki Iñakirenak dira), eta erakusketan barrena eraman gintuen. Bizi-pozez azaldu zigun nola heldu zioten proiektuari. Oso gogoan dugu nola eraman gintuen Xabier Álvarez de Eulateren *Bilboko itsasadarraren bista* (1989) eta *Paisaia* (1976) ikustera eta nola nabarmendu zuen haren izaera apala. Ezin gomutatik kendu Xabier Egañak sortutako *Romero monsinorearen hilketari* (1980) eta *Omenaldia monsinore Romerori* (1980) artelan ederrak erakutsi zizkigunean emandako azalpen eder eta teknikoak. Berdin *Bitoriano*

Gandiagaren erretratua (1978) erakutsi zigunean ere. Iñakiren eskutik ikusi genituen Juan Arriolaren *Aulkiaren atsedena* (1975), *Bizikleta* (1976) eta *Lauburua* (1984) eskulturak ere; baita Jose Luis Iriondoren karikatidak eta autorretratua ere. Gozatu ederra!

Beste une bat izan zen *Nikolas Seguro*. *Fraide, artzain eta bertsolari* liburu

ria Xabier Euzkitzek, Eduardo Urartek eta berak aurkeztu zutenenean iaz Gandiaga Topagunean. Ederki adierazi zuen bertsolaritza ere barru-barrutik maite eta bizi zuela. Musika eta euskara hizkuntza ere bai.

Iñakik esanak dira “Maitatu Arantzazu” eta “Bizitza motza da, baina bizia betiko”. Horixe, ba!



Oñatiko Inauteriak 2018

Argk.: Maite Irizar - dantzan CC BY-SA.

Laister dira bertan inauteri jaiak. Otsailaren 10ean ospatuko dugu Oñatiko, kolorez eta umorez alaituz herriko kaleak. Egun horretan egingo diren dantzak ikasteko entseguak asteartetan (20:00) eta larunbatetan (12:00) izango dira, Oñatz dantza taldearen Errekaldeko lokalean. Lehenengo entsaioa abenduaren 12an izango da. Animatu eta parte hartu!!!

Oharrak: 16 urtetik gorakoek soilik parte har dezakete (2002an jaiotakoak).

Dantza egin nahi ez duenak ere badauka aukera pertsonaia bezala parte hartzeko.

OÑATIKO INAUTERIETAKO TALDEA

ARRIZABALAGA Aroztegia
Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA Altzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUJALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA Okindegia
Ostiral, asteburu eta jai egunetan haserriko agia, egernezko labean zaitza.

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Gazteen emantzipaziorako diru laguntzak

- Arazerixan -

Laguntza hauen xedea zera da: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei, etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea.

Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batek, alokairuko etxebizitzaren erabilzaitza nagusi diren neurrian, gazteek pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, hirugarren urtez, emantzipaziorako diru-laguntzak eman ditu Oñatiko Udalak. Hori dela eta, momentu ona izan daiteke diru-laguntzen eta bilakaeraren balorazioa egiteko.

Aipatzekoa da urtero eskaera-kopurua igotzen joan dela. 2015ean 22 eskaera izan ziren, 2016an 23, eta 2017an 29 eskaera. Datu horri, jakina, banatutako diru-kopuruarena gehitu behar zaio: 2015ean, 16.351€ banatu ziren; aurten, berriz, 42.665€. Gure ustez, datu horiek adierazten dute diru-laguntza hau sendo erroto dela Oñatiko gazteen artean. Eta sor-tu zireneko helburuak betetzen ari direlakoan gaude.

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat ere. Hiru urte hauetan mutilen eskaera-kopuruak ez du bilakaera nabarmenik izan. Nesken eskaera-kopuruak, ordea, gora egin du urtero. Horrela, datu interesgarri eta pozgarria dirudien arren —nonbait, neskentzat diru-laguntza baliagarria izaten ari da emantzipazioari begira—, beste alde batetik, neskek behar handiagoa dutela ere ondorioztatu daiteke.

Dena den, Udalaren irakurketa, zalantza barik, positiboa izan behar da. Uste dugu diru-laguntza hauekin neska gazteen kolektiboan positiboki eragiten ari garela, argi eta garbi.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmentzeko beste datu bat, eskatzaileen %87k 25 urte edo gehiago baitauka. Datu hori logikoa bada ere, adin horren aurretik estabilitatea lortzeko zailtasunak daudela ere adierazten digu.


Bukatzeko, eskatzaileen etxebizitza mota aipatu nahiko genuke, diru-laguntzen ondorioz eskatzaile gehienak bakarrik edo bikotean bizitzea lortu dutelako.

Gauzak horrela, laburbilduz, Oñatiko Udalaren izenean egin daiteken irakurketa oso positiboa da. Izan ere, gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari gara, eta Udalak etxebizitza arloan kompetentzia zuzenik ez badu ere, gure gazteen ongizatean zuzen eragiten ari garelakoan gaude.

Emantzipazio diru-laguntzen banaketa adinaren arabera



Nesken diru-laguntza eskaera kopurua urteka



Mikel

GURIDI EZKATI

EUSKADIKO

KARTING

SERIEAK

irabazi ditu

Junior mailan



Mikel Guridi Ezkati, 14 urteko oñatiar-
rarak, Euskadiko Karting Serieak irabazi
ditu Junior mailan. Kolonbian jaioa, bost urte
zituela etorri zen Oñatira bizitzera. Sei urterekin hartu zuen lehenengo
aldiz kart bat, eta alebin mailan hasi zen lehiatzen. Ondoren kade-
te mailara pasa eta aurreneko lasterketak irabazten ere hasi zen.

Aurtengo denboraldia ere oso ondo joan zaio; bost lasterketatik
lautan garaipena lortu du, eta hirugarren postua bestean. Horrenbestez,
Euskadiko Karting Series-eko txapelketa irabazi du junior mailan.
Gainera, Azpitian egiten den lasterketa urbanoan ere lehen postua
lortu du, eta oso pozik dago kart gidari gaztea.

Euskadi Karting Series-eko karrera gehienak Olaberriko Vilariño
Motosport zirkuiotan jokatzeko dira, eta goiko argazkian ikusten
den moduan, Mikelek 125cc.-ko *Intrepid* markako kart-a gidatzen
du, 120 km/0.-ko puntako abiadura hartzen duena.

Datorren urtera begira, aurten bezala Euskadiko eta Nafarroako
txapelketan parte hartzeko asmoa du Mikelek. Baina, bestelako
helburuak ere baditu 2018ra begia. Laguntzak lortzen baditu, Gaz-
tela eta Leongo lasterketaren bat edo beste egitea gustatuko litzaio-
ke, bere maila neurtzeko beste erkidego batzuetako pilotuekin.



Laguntzak lortzen baditu, datorren urtean Gaztela-Leongo lasterketaren batean parte hartu nahi du

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeon jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Oñatiko Kirol Sariak-2017

Aurten ere Oñatiko Kirol Sariak emango ditu udalak, urtean zehar nabarmendu diren kirolarien eta hauen inguruan lan egiten duten teknikarien eta laguntzaileen lana aitortzeko. Abenduaren 22an egingo da ari banaketa udaletxean (19:00).



Nerea Diaz



Jon Altube



Ihanire Urteaga



Xabi Lete

HERRITAREN SARIA Udaleko kirol batzordeak emango dituen saiez gain, herritarrek ere izango dute kirolari onena hautatzeko aukera, epaimahaiak proposatutako lau kirolarien artean: Nerea Diaz (Espainiako txapelketan parte hartu du bosgarren urtez jarraian), Jon Altube (Arabako BTT Challengeko irabazle eta 3. Euskadiko mendi eskiko kopan), Ihanire Urteaga (Gipuzkoako triatloto txapeladuna), eta Xabi Lete (Euskadiko mendi lasterketen koparen irabazlea). Abenduaren 4tik 20ra eman ahal izango dira botoak www.oñati.eus webgunean. Parte hartzen duten guztien artean bi laguntzako afaria zozketatuko da.

Gipuzkoako ziklo kross txapelketa

Oñatin, abenduaren 17an

Abenduaren 17an jokatu da Oñatiko VIII. Ziklo Krossa Urrutxu inguruetan. Euskadiko challenge-rako puntuagarria izateaz gain, aurten Gipuzkoako txapelak ere egongo dira jokoan Oñatin. Goizeko 10etan hasita, kadete, junior, master eta elite nahiz sub-23 mailako lasterketak jokatu dira.



Aimar Erostarbe eta Unai Cueva, Legazpiko probako podiumean

ZAZPI OÑATIAR

Aloña Mendi-Arrikruz taldeko txirrindulariei dago-kienez, kadete mailan Aitor Altube, Unai Cueva, Aimar Erostarbe eta Aritz Torres ariko dira, eta junior mailan Ander Blazquez eta Iosu Gartzia. Emakumezkoen jubenil mailan Garazi Erostarbek (Gipuzkoa Ogi Berri) ere parte hartuko du. Orain arteko karreretan maila onean aritu dira geureak. Azpimarratzekoa Aimar Erostarbek Legazpin lortutako garaipena, bere taldekide Unai Cuevaren aurretik. Beasainen 4. sailkatu zen Cueva.

Azkoititik Azpeitira mendiz

Aloña Mendik abenduaren 17rako antolatu duen mendi irteerak Urola bailarako hiru mendi ezagunetara eramango gaitu: Kakuta, Xoxote eta Erlo (1.026m.). Guztira 16 km.-ko ibilbidea, zailtasun barik. Irteera, goizeko 8etan, postetxean. Izena emateko azken eguna, abenduak 14, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Prezioa, 10€. Federatuta egon behar da. Urteko azken irteera izanik, amaieran bazkaria egingo da Landeta auzoan.



Valderejoko mendi irteeran ateratako argazkia

Hiru domina denboraldiko lehen krosean

Hiru domina lortu zituzten Aloña Mendiko korrikalariak denboraldiko lehenengo krosean, Irunen. Igor Mugarza azkarrena izan zen 16 urte azpikoen mailan, eta Marisol Ramos ere lehenengoa izan zen beterranoen mailan. Aitor Diaz de Monasterioguren ere podiumera igo zen (3. tokian) 18 urte azpikoen mailan. Azpimarratzekoa baita ere Nahia Lasagabasterren 5. postua 16 urte azpikoetan, eta Eric Martinen laugarrena 20 urte azpikoetan.

fontanería y calefacción

BELOKI

- > Iturgintzako material salmenta
- > Romun eta sukaldeetako erreformak
- > Rzuzejoen salmenta
- > Kalefazioa eta aire girotua
- > Diseinua, dekorazioa eta opariak
- > Obren koordinazioa

Bakardadeko Ama 11 • Tel.: 678 46 54 58 • OÑATI

%20ko deskontua
erakusketako altzarietan



HOR KONPON

20 uteren ostean bueltan



Kontzeju | 26 | Ipeñik

Bueltan da *Hor Konpon* taldea. Kilometroetako abestiaren aurkezpen jaialdian agerralditxo egin zuten, eta behin abiada hartuta, kontzertu sorta bat ematea pentsatu dute. Abenduaren 16an izango da lehenengoa, Gaztelekuan, Joseba Tapiarekin kartela osatuz.

Gaztelekuan bertan eman zuten, hain zuzen, bere azken zuzenekoa *Hor Konponek* orain dela hogeita bat urte, Jose Mari Agirrebengoa 'Txinparta' zenaren omenezko kontzertuan.

Hamar urteko ibilbide opa-roari amaiera eman zion kon-

tzertu hark. Tarte horretan bi disko plazaratu zituen Hor Konponek: 1991n aurrenekoa, *Bateneuanba* ondarrutarrekin partekatuta, eta 1994an bigarrena, *Gizaki Standard 7534 Zebakiduna*, bakarka, biak ere Elkar-en eskutik. Tartean, maketa bat ere (*Zai nago*) grabatu zuten, Euskadi Gazteako Maketa Lehiaketako lehen saria (600.000 pta) eman ziona.

Abenduaren 16an emango dute lehen kontzertua Gaztelekuan, Joseba Tapiarekin batera

Koldo lizarralde (kitarra), Andoni Campos (baxua), Oskar Arlanzon (bateria) eta Xabier Yaniz (kitarra eta ahotsa), Hor Konpon-eko kideak

Aurreko bi edizioetako irabazleak *EH Sukarrak* eta *Sorotan Bele* ziren.

Izen bat lortu zuen Hor Koponek, eta Elkar zigiluaren eskutik garai hartako musika talde nagusienekin (*Tijuana in Blue*, *Zarama*, *EH Sukarra*, *Baldin Bada...*) partekatu zuen eskenatokia Oñatiko laukoteak. Danera, berrehun bat kontzertu eman zituzten; horietako batzuk gogoangarriak, hala nola,

ETXIAN
Oñatiko inbiliaria berria
Donostian etxea erosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi al duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

EtXian

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

2003ko Kilometroetan, Andoainen, Zaramarekin batera eman zutena, 4.000 lagun en aurrean.

Rock radikala nagusi zen garai hartan, haize berria ekarri zuen *Hor Konponek*, doinu poperoetatik rockeroagoetara eboluzionatuz, baina beti ere garrantzia emanaz melodiari. Behin baino gehiagotan egon ziren abesti entzunenen zerrendatako lehen postuetan, eta erreferentziazko taldea izan zen 90. hamarkadako lehen urteetan.

Oñati mailan ere, bide bat zabaldu edo urratu zutela esan daiteke, beste talde batzuekin batera. Garai hartan, erromeria taldeak kenduta, *Berakatz Band* eta *Sax le Bolo* ziren talde bakarak herrian, eta, batez ere, azken hauen arrimuan hazi zen



Bi disko (horietako bat *Bateneuanba* taldearekin erdibana) eta maketa bat kaleratu zuen Hor Konponek. *Zai nago* izeneko maketarekin Euskadi Gazteko III. Maketa Lehiaketa irabazi zuen

Hor Konpon, Errekaldeko soto-ko lokala partekatuz. Orduan sortu ziren *Amonal*, *Euripean* eta *Argi Ibili* bezalako taldeak, eta pittin bat geroago *Latzen*. Azken hauekin ere makina bat

eskenatoki partekatu zuen *Hor Konponek* bere azken urteetan.

Ilusioz gainezka

Aparteko asmorik gabe dator orain bueltan Hor Konpon, musikaz gozatu eta, ahal bada, entzuleei ere gozagarazteko gogoz. Zortzi bat hilabete darimate entseguetan Eltzian eta pittin bat urduri badaude ere, ilusioz gainezka daude hilaren 16ko kontzertura begira.

Orain dela hamabost-hogei urte puri-purian egon ziren *Mikel eta Jon*, *Deabrua eta abaria* edota *Bake dantza* bezalako abestiak joko dituzte, eta baita Yanizek idatzi duen kanta berriren bat ere. Oñatiko kontzertuaz gain, beste emanaldi batzuk ere lotuak dituzte jada.

SAIO LINBIKOAK udal liburutegian

Rafa Ruedak estreinatuko du literatura, musika eta emozioak uztartu nahi dituen ekimen berria


ABENDUAK 15, UDAL LIBURUTEGIAN, 19:00

Rafa Rueda (Mungia, 1972) musikari bizkaitarra izango da udal liburutegiko Saio Linbikoak izeneko kontzertu sorta irekiko duen artista.

Literatura, musika eta emozioak biltzea da ekimen berri honen helburua. Musikariak, formato akustikoan beti ere, hainbat kanta abestuko ditu, gizakiongan oinarritzakoak diren emozioak eragiteko: poztasuna, tristezia, haserrea, beldurra, nahigabea... Aldi berean, musikariak bere ibilbidean zehar izan dituen erreferente literario eta musikalak partekatuko ditu entzuleekin, elkarreragina sustatuz

Emozioak esperimentatuz, kulturaren garrantziaz jabetzea da saio linbiko hauen helburua; entzule-ikuslea partaide sentiaraztea, eta kultura bizitzea, ikuspuntu berritzaile eta hurbileko batetik, hartzaileen parte hartzea bultzatuz.

Rafa Rueda *Broken Bihotz* eta *Pi.L.T* bezalako taldeetako abeslaria izan da, eta zazpi disko grabatu ditu bakarka



IPUIN KONTAKETA

HAURRENTZAT / abenduak 14

Ostegun Kontalariak ekimenaren barruan, 6-9 urte arteko gaztetxoei zuzendutako 'Heldu eskutik' izeneko saioa, Dorleta Kortazarren eskutik, udal liburutegian 18:30etan. Gonbidapenak abenduaren 1etik aurrera banatuko dira.

ITZAZLEZKO TITERE

TAILERRA / abenduak 19

4 eta 6 urteko haurrentzat. Lehenengo txotxongiloak sortuko dituzte, eta ondoren bizitza emango diete sormena, irudimena eta jolasa landuz. Udal liburutegian, 17:30etan. Izen-ematea abenduaren 1etik aurrera.



IPUIN KONTAKETA

HELDUENTZAT / abenduak 20

Cecilia Paganini ipuin kontalari argentinarrak *En la boca del lobo* izenburua duen saioa eskainiko du helduentzat, otsoaren inguruan kontatzen diren istorioen atzean dauden mito, uste eta egien inguruan. Udal liburutegian, 19:00etan.

Leongo katedralean abestu du Oñati Abesbatzak

Aurrez *Capilla Clásica de León* abesbatzarekin hitzartu bezala, Oñati Abesbatza Leonen izan zen urriko azken asteburuan, eta datorren urtean etorriko dira eurak Oñatira.

Urriaren 27ko arratsaldean abiatu ziren Leonera bidean. Larunbat goizean entsegu txiki bat egin zuten hotolean bertan, eta arratsaldeko 8:30etan eman zuten kontzertua San Martin elizan. Jende ugari eta giro oso aproposa. Lehenengo, bertako abesbatzak egin zuen bere saioa, eta ondoren Oñati Abesbatzak.

Abesti desberdinekin osatu zuten kontzertua: erlijiosoak, folklorea... Euskal abesti batzuk ere bai tartean, *Kantauri* eta *Sehaskatxo bat*.

Leon aldean oso ezaguna den abestia (¿*Qué dirá la gente?*) ere prestatuta eraman zuten, eta asko eskertu eta txalotu zuten oñatiarren interpretazioa.

Iganderako hitzartuta zuten Leoneko katedral zoragarrian meza abestea. Nahikoa kostata lortutako pribilejioa izan zen, eta lau abesti kantatu zituzten. Tartean, hain gurea den Madinaren *Aita Gurea*. Oso hunkigarria izan zen Gaztelako bihotzeko katedral ospetsuan euskaraz abestea.

Leongo artea eta giroa das-tatzeko aukera ere izan zuten. *Zona húmeda* edo taberna inguruko abeguneaz aparte, San Isidoroko kolejiata ederra bisitatu zuten; Leongo udalak



“Oso hunkigarria izan zen katedralean Madinaren *Aita Gurea* abestea



Capilla Clásica de León abesbatzarekin egingo duen elkartrukearen lehen partea izan da

beraien esku jarritako “tren txutxu”an hiriari jira bat eman zioten, eta katedrala bera eta San Marcos eraikuntza ederra ere mirestu zuten.

Igandeko bazkaria Leonetik aparte xamar dagoen herritxo bateko kobazulo bateko jate-txean egin zuten, etxerako bidea hartu aurretik.

Gabonetako kontzertua Agustionetan

Urtero bezala Gabonetako kontzertua eskainiko du Oñati Abesbatzak Agustionen elizan. Abenduaren 23an, larunbata, izango da, mezaren ostean.



- Galdaragintza - Caldereria
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50
www.caravanasonate.com
- Bizikletak
- Erremolkeak
- Txirrindularitzarako osagarriak
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

Argi efektuz eta soka-orkestraz lagundutako kontzertu berezia emango du Ganbara Abesbatzak

Aurtengo Gabonetan ere kontzertu-ikuskitan berezia eskainiko digu Ganbara Abesbatzak. *Serenity* (lasaitasuna, ingelesez) jarri diote izenburua emanaldiari, eta konposatzaile garaikideen doinuak abestuko dituzte. Baina ez da izango ohiko kontzertu bat, argi efektu bereziz jantziko baitute abesti bakoitza. Iazko 'Argiaren Hotsa' ikuskizunak izan zuen harrera bikaina ikusita, aurrean ere espreski diseinatutako argi efektuz apainduko dute parrokiak, kanta bakoitzak inspiratzen duen intimitate eta lasaitasun giroa lortuz.

Bi zati izango ditu kontzertuak. Lehenengoan, *Stopford*, *Whitacre*, *Sarasola*, *Essenvals*, *Gjeilo*, *Elberdin*, *Nysted* eta *Miskinis*-en konposizioak abestuko ditu Ganbara Abesbatzak, eta bigarren zatian, sokazko ganbara orkestra bat lagun dutela, *Gjeilo*-ren bi obra, Aitor Biainen zuzendaritzapean beti ere.


Sarrerak 10€ balioko du, orkestra eta argi muntaiaren gastuei aurre egiteko. Online ere eskuratu ahal izango dira sarrerak: <http://ganbara.sacatuentrada.es> atarian.



**Abenduaren 29an,
Mikel Goiaingeruaren
parrokian, 22:00etan.**

HOTS abesbatza eta Rakel Ortega arpajolea

ABENDUAK 16, BENEDIKTINETAKO KAPERAN, 19:00



Aitor Biainek zuzentzen duen HOTS abesbatzak 'Izar ederra' izeneko kontzertua eskainiko du Rakel Ortega arpajole iruñearrekin batera. Lehen zatian, Benjamin Britten britaniarraren 'Ceremony of Carols' entzutetsua interpretatuko dute. Bigarren zatian, estilo eta garai ezberdinetako obrak abestuko dituzte. Sarrera, 5€.

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbisesores.com

www.gualbisesores.com

AGENDA

12 ABENDUA



Argk.: Santi Mendiola

ODOL ATERALDIA

> **AZAROAK 10 / 17:00**

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

IKUSKIZUNAK

> **ABENDUAK 16 16:30 /18:00**

TOMAX PAILAZOAK



Errekalde eskola publikoko guraso elkarteak antolatuta, *Tomax* pailazoan ikuskizuna, herritar guztiei irekia. Bi saio izango dira, 16:30etan eta 18:00etan, R.M. Zuazola institutoko antzokian. Sarrera, 4,5€. Aldez aurretik Mizke, Kiku eta Txokolateixan salgai.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



KONTZERTUAK

> **ABENDUAK 3 / 19:30**

MUSHKUM



Laudioko rock taldearen kontzertua. Pako tabernan.

> **ABENDUAK 10 / 19:30**

JOSEBA B. LENOIR



Berako musikariaren kontzertua. Pako tabernan.

> **ABENDUAK 17 / 19:00**

GABONETAKO KONTZERTUA

Musika Banda, Ganbara, Hots, Ganbara Txiki, Oñati eta Parrokiako nahiz ikastolako abesbatzek parte hartuko dute. Parrokian.

> **ABENDUAK 27 / 19:30**

AITOR REGUEIRO/HERSTURA Oñatiko Aitor Regueiro bakarlar eta Herstura taldearen kontzertua. Tartean luntxa egongo da. Pako tabernan.

JAIALDIA

> **ABENDUAK 15 / 18:00**

TXISTORRA JANA ETA DANTZALDIA

Pake Leku elkartearen. Tiketak: 1€ (bazkide ez direnentzat 2€). Pake Leku.

ANTZERKIA

'Nos vamos de vacaciones'

> **ABENDUAK 3
SANTA ANA, 19:00**

Pake Lekuko IKusi-Makusi taldeak 'Nos vamos de vacaciones' antzezlan berria taularatuko du. Senarrek jakin barik, Benidorrerako bidaia prestatzen ari diren hiru emakumeren gorabeherak kontatzen dituen umorezko antzezlan da. Ikusi-Makusi taldekoek hamahiru urte daramate jada urtero antzezlan bat taularatzen. Sarrera, 5€.

DOKUMENTALA

> **ABENDUAK 19 / 19:00**

'ZUK'

Errefuxiatuekin diharduten boluntarioen lana jasotzen duen Zuk dokumentala eta 'SOS Arrazakeria Debagoiena' ekimenaren aurkezpena. Kultur etxean

BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



DENIS SANTACANA
MAIZTEGI
dantza konpania

HITZALDIA

> **ABENDUAK 12 / 17:30**

'EDADISMO'

Zahartze aktiboa sustatzen duen 'Bizipoz' programaren barruan, Eider Etxeberria eta Beatriz Santamariaren hitzaldia. Pake Lekun.



> **ABENDUAK 26 / 19:00**

"Ondas gravitacionales: una nueva perspectiva del universo"



Hizlaria: Jose Felix Rojas, EHU-ko planeta-zientzien taldeko kidea. Ilatargi taldeak antolatuta. Kultur etxean.

> **ABENDUAK 27 / 18:00**

'Ekologiatik kritika Sobietar Batasunari eta Marxismoari'



Sobietar iraultzaren idealen eta errealitatearen arteko desfasearen inguruko gogoeta egingo da. Gaztetxean.

'ENCUENTROS'

dantza ikuskizuna

> **ABENDUAK 22**
Santa Ana, 22:30

Amaren aldetik oñatiar jatorria duen Denis Santacaren (Donostia, 1984) ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu. Dantzari eta koreografo profesionala da Denis, dantza klasikoan eta garaikidean trebatua.

2013az geroztik bere konpania zuzentzen du, dantza publikoarengana hurbiltzeko bideak ikertzen beti ere.

Encuentros ikuskizunean dantza garaikidea eta flamenkoaren fusioa egiten du, hain desberdinak diren bi estiloen arteko erdibideko lengoia bilatuz.

Bi ezezagunek begiradak gurutzatuko dituzte une eta espazio jakin batean. Eta enkontru hori izango da komunikazio eta amaiera ezberdin baten abiapuntua.

Sarrera: 8€. Aurrez salgai <http://bibe.me> atarian eta baita lehiatilan ere.



LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Liburua + CD + DVD

"Soinu tresnak Euskal Herri."



CD

"Besamotzak"



CD

"Mikel Laboa"



CD

"Gorraiztea"



CD

"Galdemoduen trilogia"



CD

"Hiri kristalezkoa"

MERKATU TXIKIA

> **GARAJE ITXIA SALGAI** Ugarkalde auzoko 5-6 atarian. Interesatuek deitu: 610 751 017 edo 647 515 257

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Abenduak 6, 7, 15, 16, 17 eta 26.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Abenduak 8, 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 31. Urtarrilak 1.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Abenduak 1, 2, 3, 11, 12, 20, 21, 24, 25, 29 eta 30.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Abenduak 4, 5, 13, 14, 22 eta 23.

not+vello

Argi pullsatu bidezko fotodepilazioa (IPL)

Depilazio laserko sistema modernoa berrizalekoa.

Oñati

Olakua 1 ☎ 943 71 67 13 onati@nomasvello.com

FOTODEPILAZIOA | IPL | GAZTETZEA | OPARI TXARTELAK | AZALEKO GARBIKETA

Jarris geroztik sareetan

www.nomasvello.es

Kale Barria (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko zortzi aldizkaritan Kale Zaharrari eta Plaza Nagusiari buruzko hainbat argibide eta albiste azaldu ondoren, hurrengoetan **Kale Barriko** kontu eta jakingari batzuei helduko diegu. Oraingoan ere **eremu hori zabal antzean arakatuko dugu**, hau da, gaur egungo Kale Barriaren eta albo-kaleen sorrera nahiz hedadura batera samar aztertuz. Izan ere, Kale Barriak, Atzeko kaleak eta inguruko beste batzuek garapen historiko bertsua izan baitute.

KALEAREN BILAKAERA

Itxuraz kontrako izena dauka kale honek. Ez da inolaz ere berria, **Erdi Aroaren** amaierara orduko, gutxienez, eremu garrantzitsuarekin agertzen zaigulako hemengo dokumentu zaharretan: adibidez, 1477ko herri-ordenantzetan garbi asko adierazten da **Oñatiko kale-gunea Zubiaurretik** (egungo Iturritxo plaza aldetik) **Olaiturriraino** (oraingo agustinoen eliza ondora) **heltzen zela**. Hori bai, erdi inguruan Antzuelas-Arrano errekek, San Migel eliza baino goratxoago, egiten zuen eten zabalarekin. Beraz, ondo berezitatiko bi auzok egituratzen zuten ordurako hirigune oñatiarra: Kale Zaharrak eta Kale Barriak, batez ere. Artean ez zegoen askoz geroago gauzatuko zen plaza nagusirik.

• 1488ko sutea

Dena den, XV. mendearen hondarreko **Kale Barri hura zeharo itxuraldatu zitzaigun 1488ko sute ikaragarriaren eraginez**. Garai hartako etxeak, batik bat, zurez egindakoak izaten ziren; belar, lasto eta liho asko gordetzen zuten; eta gainera sutegi ugari zeukaten etxepeetan, herriko *ultzegin* eta errementariak euren lanetarako zerabiltzatenak. Halako baldintzekin sua azkar asko zabalduko zen, haizearen laguntzaz, ziur aski. **Kale Barria eta honen osteko aldea (Atzeko kalea) ez ezik, orduko Santa Marina auzoa ere erabat kiskalduta geratu ziren**. Gorago aipatu dugun Antzuelas errekek eragotziko zion suari Kale Zaharre-
ra iristea.

• Hondamendia konpontzeko lehen urratsak

Hartara, Kale Barria *berriagoa* moldatzeari ekin zioten herritarrek 1500 inguruan. **Etxeak berreraikitzeko, lehen baino harri gehiago erabili zuten, eta sutegi gehienak Ubao errekez bestaldera aldatu**; orduan sortu ziren, hain zuzen ere, Zubibarri, Lekunbarri, Auzabarri eta beste errebal batzuk. Ikus dezakezuenenez, auzune hauen lehenengo bertsioa ere ez dugu atzo goizekoa.

Hala ere, esan beharra dago zuraz erruz baliatu zirela hondatutako eraikinak berriro jasotzeko orduan. Horretarako, **batzar**



Kale Barria 1960ko hamarkada aldera.

irekia egin zuen kontzejuak Oñatiko San Migel plazan (enparantza zaharrean, alegia), **1489ko otsailaren 22an**, hemengo herri-baso desberdinetako hariztietatik materiala banatzeko arauak finkatzeko. Hori dela eta, kalerik kale eta auzorik auzo, **familiaburu denen zerrenda zehatza idatzi zuten**, larrialdi nabarmen hartan bakoitzak zenbateko diru-ekarpena egin behar zuen garbi adieraziz. **Hau dugu oñatiarron lehenbiziko errolda**, era askotako datuak eskaintzen dizkiguna; aberatsa, benetan.

• Kalearen luzapenak

Ez zen soilik erretako kale-gunea berreraiki. **Karrikak luzatzeko aukera ere aprobeztatu zuten**. Ordura arteko Kale Barria eta Atzeko kalea egungo Naparreneko kantoian eta Iturritxon bukatzen baziren, **XVI. gizalditik aurrera sail berriak irabazi zituzten** batak zein besteak. Kale Barriko zatia **Kalegoiena** legez ezagutu zen XVI.etik XIX.era; Atzeko kalearen luzapenari, Iturritxotik Portalekurainoko tarteari, ez zitzaion izen berezirik jarri berandura arte, aurrerago argituko den bezala.

Kalegoiena zeritzana Naparreneko kantoian horretatik oraingo **Etxaluzeraino** jasotako etxe-ileak osatzen zuten. Geroago beste luzapen bat ere izan zuen kaleak, Etxaluzetik Murgizubieta-
ra doana, San Martingo zubiraino, alegia: **Auzotxo** gisa zen ezaguna luzaroan eta 1970ko hamarraldian Martzelino Zelaia izen ofiziala bereganatu zuen, Etxaluzeko lorategi eta baratzean poligono berria eraiki zenean.



Kale Barria eta inguruak 1848an.

ZUZENKETA ETA GEHIKUNTZA BATZUK

Orain hurrengo zenbakian eta aurrekoetan azaldutako datu batzuk zuzendu edota zehaztu beharrean gaude.

- Kale-izenen aldaketa-datari buruz honako hau argitu behar dugu: Gipuzkoako Aldunditik 1896an agindu bat bidali zitzaizen udalei herriko kaleak eta plazak euskaraz nahiz erdaraz izenda zitzaten. Abagune hori baliatuz, kale batzuen izena bera ere aldatzea erabaki zuen kontzejuak.

Adibidez, orain arte ikusitakoan artean ondorengoek jasan zituzten mudantzak: **Kale Zaharrari** orduantxe hil berria zen **Juan Carlos Alzaa** alkate ohiaren izena ezarri zitzaion; **Plaza Barria Fuegoen Plaza** izan zen harrezkero; eta **Kale Barria**, berriz, **Rodrigo Mercado Zuazola** apezpiku ospetsuari eskaini zioten. Erabaki horiek 1896ko abenduaren 24ko eta 1897ko urtarrilaren 15eko udal bileretan hartu ziren; eta ez 1905ean inoiz idatzi dugun bezala. Aurrerago ikusiko da aldaketok noiz arte iraun zuten.

- Plazako iturrian 1882an jarri zen Frantzisko Antonio Elortza jeneral araoztarraren bustoa ez zen Parisen moldatu, bes-

te iturrietako burdinazko irudiak bezala. Militarren familiak herriari egindako oparia izan zen eta beste hainbat lekutan (Asturiasko Trubian, Segoviako alkazarrean edo Araotzeko Agerre base-rrian) dauden pertsonaia beraren bustoen kopia da.

- Esan, gainera, plaza inguruan kokatu izan direla beste denda, elkarte eta kontsulta batzuk ere. Esaterako, Txurrukaneko aldean, **Karlsten zirkulua** XX. mendearen hasieran, eta **Euskadiko Ezker-rra talde politikoaren lokala** trantsizioaren ondoren; beste arkupean gainean, berriz, **EAJren batzokia**, hau ere 1980 ingurutik aurrera. **Acción Católica Española** elizaren erakundeak ere Txurrukaneko gainean izan zituen luzaroan bere egoitzak: gizakumeena San Juan kale aldera, eta emakumeena Zazpibidetarantz; **Caritas**-ekoek ere han aurkitu zuten euren txokoa.

- Horietaz gain bestelako denda eta bulegoak ere egon dira edota daude plaza aldean: besteak beste, **Lertxundi burdindegia**; **Asun Arzuagaren artile-denda**; **Ignazio Berroetaren liburu-denda**; edota **Javi Perez eta Rafael Kortabarriaren lege- eta finantza-zerbitzuak**. Beste aldeko arkupeetan **Luis Arrazola okulistik** eta **Luis Zulueta otorrinoak**, oñatiarrak biak, eduki zituzten euren kontsultak gure haurtzaro eta gaztaroan.

TSURRUST
 TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





IIPPEN BAT

(*) Ippen: arrastua, pista

Kontu kontari

AUSTE ESTANA

Fan ziran behin oñatiar batzuk Bilboko erremintta-ferixara eta han gauza asko ikusitta herrira aillegau, eta, usadixuari jarraituaz sartu ziran Txarridunarenian mokadutxo bat egitteko. Botilla-ardaua etara orduko hasi ziran barriketan, Bilbon, ferixa nagusi horretan, ikusi eta erositakuaren gaiñian, eta mostadore onduan eguen lagun batek bota osten:

— Zer barri, ba, Bilbo aldian?
Erosi dozue ezer?

— Ba, bai, begira, artazi honeik erosi ditxuagu, alemanak, "Auste estana" markakuak.

— Eztok izango! Erakutsi!

Bestiak ikusi orduko:

Bueno, mutillak, honeik Zubillagan Altunarenian egitten ditxuui, baiña, zer esaten zabiltzai!
Alemanak eta iñunguak baiño hobiak ziralakuan, bertakuak eta iñunguen inbidixa bagerikuak izan! Hamaika holako ikusteko jaixuak gaittuk!



Ez kikilddu, ez lotsatu

UNTZUA ETA URDAIAZPIKUA

Gure aurrekuak ondo bereizten zittuain untzua eta urdaiazpikua. Gaur egunian ezta hala gertaketan, izan be erderaz bixai "jamón" esaten xate: "pongame 200gr. de jamón serrano" eta "esos jamones que cuelgan del techo son de Guijuelo". Hori dala-ta emuten dau euskeria erderazko moldera egogittu bihar dala betik eta eztago zertan, askoz hoba litzake dakogun lexiko aberastasunari eustia eta bereizkuntza hori gordetia.

Hortaz, gure euskeriak dakon ñabardura hori galdu ezta din holako esaldixak bota degigun billur barik:

Galziarenian untzo ederrak agiri ziran txintxiliz, baitta Goñirenian be sasue batian.

Mostradore osteko untzo horreik nunguak ete dira, kanpokuak ala bertakuak?

Ereysi untzo bat, oraintxe bertan probau bihar dot eta.

Zer gurako zeke? 200 gramo urdaiazpiko, fin ebagitta, mesedez.

Eta zer urdaiazpiko gura dozu, ba? Edonungua, baiña bihar dan moduan ondutakua!

Urdai-ontzo= txarrixaren lau hankak urdaixa eta gixarrarekin.

Untzo bat: txarrixaren hanka bakoitza

Lau untzu

Untzoko urdaixa: atzeko hanketako urdaixa



Urdaiiazpikua: el jamón.

Urdaixa: tocino

Ontzu (Bergara); Untzu, untzo, ontzo (Oñati)



EUSKERAZ
EGOGI

*Egunon /
*Arratsaldeon

Bi berba honeik be gero eta gehixagotan batuta ikusten dittugu eskribiuta, eta ohartu bihar gara bi berba dirala eta bereiz idatzi bihar dirala; hortaz, banaanduta idatziko dittugu **egun on** eta **arratsalde on**, nahiz eta agoskatterakuan bat egindda esan: [egúnón] eta [arrátsaldeón].

Hala ta be, kontuz ibilli **gabon** berbiarekin, esaten dan moduan idazten da-ta.



Oñatiko tren

Majo kostata etorri zan **trena** Oñatiraiño. Eta, hala ta be, ez eben askotzarik iraun: 44 urte bakarrik. Vasco-Navarro ize-neko lineiaren adarra zan San Prudentziotik honaiño heldu xakuna **1923ko agorraren 30an**, San Migel bixamonian. **Victoria Eugenia erregiña** dotoria agertu zan **inaguraziñukuan**; gizon barik, Alfonso XIII.a oso nahastuta eguelako egun batzuk lehenago M. Primo de Riverak jeneralak jo eben estadu-golpian. Lau hamarkada eta erdi horreittan makinatxo bat fan-etorri egin eben gure trentxuak **1967ko abenduaren 31n**, Urte Zahar egunez, **azkenengo biajia burutu arte**. Orain dala gizaldi erdi, hain zuzen be.

Lehenengo hamabost urtietan lurrunezko makiñiak, txokolateriak, tiraketan zittuan bagoiak; orain antxiñako estaziñuaren onduan bistan daguenaren moduko batek. **Gero**, 1938tik aurrera, **elektrofikauta** geratu zan linea osua. Guk kolore horiko tren ha ezagutu geben, nahiz eta batzuetan bagoi zaharrago eta illunago batzuk be ibiltten ziran. Trenak **Oñatitik** Elorregi auzora **beti puntuan urteten eben**; baiña bueltakuak ez eukan ordu **fijorik**, sarrittan atzerapenakin aillegaitten zalako: hamar miñutu, ordu erdi edota gehixago.

Zenbat oroitzapen dakarkigun trenak! Oñatiko estaziño aldian, Ibarren, egitten gittuan jolasak; San Pedroko geralekuko pasadizuak, gurasuen auzora faten giñanian; hain bizimodu motza euki eben **Garibai-Madalenako geralekuaren inaguraziñokua**; Zubillagako estaziño eta auzuaren ingurukuak; edota San Prudentzion, Zelaiko baserrixaren albuak, eguen estaziño ederraren aurrian egitten gittuan **akaberabako itxoinaldixak**, batian Mondrague aldera eta bestian Bergararuntz hurreratu guran; Eskoriatzatik **Gatzagaraiño**ko igoera luze eta bihurrixa Bitorixarakuan, edota **Maltzagako transbordo konplikaua**, Eibarreko dendetara edo Deba-ko plaiara fatia gura gebenian.

Horreik eta beste gogorapen asko datozkigu burura. Hori akordaitteko aukeratuko dogu Oñatiko estaziño aldeko argazki hau 1960ko hamarkadakua izango da; **trenak bere onenak emunda eukan** ordurako eta, **urte askuan barriztau etzalako**, egoera negargarri samarrian eguen. Batzuk mantenitten saiatu ziran arren, hemen eta beste leku askotan **tren-linea txiki ugari kendu zittuiain**, auto eta autobusen negoziuen mesederako gehixenetan. Gaur egun, **estaziñua** (posta-etxe bihurtuta), **makiña zahar bal-tza eta bidegorri batzuk** (euren zubi eta tunelekin) gelditu dira tren-sare haren lekuko moduan.

J. E.

Fotografia Udal Artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsekua da.



APAINKETAK

BESAUUKIAK

ALTZARIAK

SOFAK

ATSEDEN-
SISTEMAK



ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE

centro hogar MUEBLES



ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE



ZIGARROLA 1

TEL.: 943 79 15 03

ARRASATE

Sofa
leku



1956-2016
6
URTE
ESKERRIK ASKO !!

URTEZ URTE ZUEN ETXEAK APAINTZEN